



ARGIA

OZTA-OZTA GAINDITUA

MUGIMENDU SOZIALEN
BALORAZIOA ALORREZ ALOR
ALDAKETAREN GOBERNUAZ

» ZATOZ EUSKARAREN MUNDU ANORMALERA

» LEIRE ALVAREZ DE EULATE, REAS: EKONOMIA INKLUSIBO ETA DEMOKRATIKOA ERAIKITZEN

» TXUMA MURUGARREN: "AUTOGESTIOA EZ DA ARAZO GUZTIAK KONPONDUKO DITUEN FORMULA"



Datorren astean

Larrun 215
www.argia.eus/larrun



KULTUR ANIZTASUNA ETA
EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

**NON DAUDE
MARRA GORRIAK?**

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Txinaren kontra datorkigun gerra

IRITZIAK

- 17 Mikel Zurbano
- 18 Pako Sudupe
- 19 Koldo Aldalur
- Miren Artetxe
- 20 Irati Elorrieta



Janaria erosteko orduan dauden ereduak kontrajarri ditugu. Kontsumo taldea batetik, denda bestetik. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 36 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: AUDREY LAURIN-LAMOTHE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

SAKONEAN

- 12 | Patxi Irurzun, idazlea: "Ematen du liburuek gero eta gutxiago inporta dutela" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Nafarroako Gobernuak ozta-ozta gairitzen du gizarte mugimenduen balorazioa / Xabier Letona
- 28 | Kontsumoa: Hozkailua betetzeko bi ate / Irati Sarasua Arabaolaza
- 30 | Leire Alvarez de Eulate (REAS): "Ezagutzen dugun kapitalismoa hiltzera doa" / Itsaso Zubiria Etxeberria
- 32 | Ana Pontón (BNG): "Galizian abertzaletasuna handiagoa da hauteskondeek diotena baino" / Unai Brea
- 34 | Euskararen mundu anormal hori / Marijo Deogracias Horrillo
- 42 | Txuma Murugarren: "Zuzenekoetan jarraitu edo ez erabakitze fasean nago" / Kepa Matxain
- 46 | Musika elektronikoa Euskal Herrian: Paraleloan, esperimentazioa eta libre / Itziar Ugarte Irizar

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PLYMOUTH

CUBA
HFF 326
3



PANORAMA

Belaunaldi berrien txanda

XX. mendeko agintari "handien" azkenak, historiako ezkerreko politikaririk esanguratsuenetakoak agur esan du 94 urterekin. Fidel Castrokekin batera, burujabetza, elkartasuna eta internazionalismoa oinarri, AEBetako inperialismoaren handinahiari aurre egin zion orduko Kubaren ikurra desagertu da, baita munduan boterean denbora luzeen izan den agintaria ere -49 urtez-. Osasun eta hezkuntza sistema publikorik onenetakoak munduan, gosea, etxebizitza falta edo alfabetismoa desagerraraztea -bere inguruko herri guztietan ez bezala-, parekorik ez duen aberastasun banaketa, AEBetako blokeoak eragindako galera ekonomiko izugarria gainditu izana... Gauzak "beste" era batean egin daitezkeela erakutsi du Kubak. Baita sozialismoaren gabeziez ohartarazi ere.

Galderak mundu osoan aldatzen ari dira. Bestelako kezka, asmo eta arazoak dituzten belaunaldi berriak erantzun berrien bila datoz ate joka, estatu-mugarik ezagutzen ez duen balore kapitalisten erauntsiak baldintzatuta. Kubatarrek, oraingoan ere, "asmatzen" jakin beharko dute.

Argazkia: Josu Trueba Leiva (Bostok Photo) - Testua: Axier Lopez

“El padre de Caín” telesail espainiarrak polemika sortu du

“Rafael Vera GALEko kidearen nobelan oinarritutako telesaila egitea ez da telezaborra, terrorismo mediatikoa baizik”

@Cylon69

“Eusko Jaurilaritzaren txostenek 4.000 torturatu baino gehiago aipatzen dituzte, %46 guardia zibilek torturatuta. Gaur #ElPadreDeCain apologia eta zuriketa lanetan”

@EnekoAnder

“#ElPadreDeCain-en ez da atxiloketa indiskriminatu bakar bat ere azaldu, herritarrak torturatzeko eta beldurtzeko hiru egunero egiten zuten horietakoa”

@ionarretxe

“Tele5-k goizean terrorismo deitzen dio taberna bateko istiluari eta gaeuz Europako tortura zentrorik handiena zuritzen du”

@aritz_hd



Euskarazko hedabideen kontsumoak gora egin du

losu Alberdi Atxurra

@atxurraa

Egun, euskaraz hitz egiteko gai direnen %45ek egunero kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, CIES enpresak kaleratutako datuen arabera. Euskarazko komunikabideen kontsumitzaileen kopurua %32 igo da azken zortzi urteetan. Iaz, 474.000 izan ziren egunero euskarazko komunikabideak kontsumitu zituzten herritarrak. 2008an, 358.000 ziren, *Berriak* kaleratu duenez.

Errota Digitala elkarteko Gorka Salces eta EHUKo Nor ikerketa taldeko Josu Amezaga irakasleak eman dute datuen berri Durangoko Azokan, beste hainbat ikertzaileekin batera. Euskal hedabideen behatokiak 2016ko urtekariaren aurkezpena aprobetxatu zuten horretarako. Euskarazko komunikabideen hedaduraren argazki

“zehatza” egiteko zailtasunak daudela azaldu dute, ikerketa batzuen eta besteen arteko hutsune eta metodologia aldaketak elkarren osagarritasunerako eragozpena direla argudiatuz. Horri Euskal Herriaren banaketa instituzionala gehitu behar zaio.

Euskarazko hedabide guztiek ez dute joera bera. Edizio elektronikoen eta irratien kontsumoa nabarmen handitu da, eta telebistarena berriz, apaldu. Eguneroko paperezko prentsa, berriz, bere horretan mantendu da. Salcesen ustez irratien gorakadaren zergatiak “tokikotasuna, eragileen aniztasuna eta hedapen geografiko zabala” izan daitezke.

Salcesen arabera, kontsumitzaileek gora egin arren gabeziak daude: “Ez da asmatu gazteentzako edukiak sortzen eta sortu diren kasuetan eginiko lana ezagutarazteko baliabideak falta izan dira”.

“Gero eta aditu gehiagok uste du PISA iruzur handi bat dela”

ENRIQUE DIEZ GUTIERREZ, HEZKUNTZA ZIENTZIETAN DOKTOREA

“Politikari batzuek PISAko emaitzak erabiltzen dituzte norbere lege-erreformak justifikatu eta aurkariak erasotzeko, baina aditu askok frogatu dute ebaluazio estandarizatu honek ez duela inongo baliorik ikasgeletako heziketa eta funtzionamendua hobetzeko. PISAk neurtzen dituen gaitasunak ez daude eskolaren esku, ezta PISAk proposatzen dituen aldaketa pedagogiko eta politikoen esku ere. Horregatik, gero eta aditu gehiagok uste du PISA iruzur handi bat dela”. AIKAEUDACION.COM (2016-12-06)



hilaren 15ean KMKn, Nazio-Estrategia solas...

«Batzuek independentziaz mintzo dira.
Nik adierazi behar dut independentziarik ez dela inon.
Munduko herri guztiak interdependenteak dira».

ez da ORAINGOa
ez da URKULLU

Maurice Yaméogo
errana 1959 an...

ETA Hain zuzen ere,
MUNDUKO HERRI
INTERDEPENDENTE-
KATEGORIA IZATEKO,
VOLTA GARAICO
INDEPENDENTZIA
deklARATU ZUEN
ONDOKO URTEAN...

Halek bai KOHERENTZIA
eta INPAZIENTZIA...



CK



Paralitikoek ere sexua nahi dute

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

“Zuk medikuari ordaintzen diozu hagina konpontzeko. Gorputza ukitu diezadaten ordaindu beharra daukat nik. Deprimituta nengoen eta hau egiten dudanetik gustura sentitzen naiz, terapia bezalakoa da”. Sexu-laguntzailea darabilen emakume bat da hitz egiten duena, Kataluniako telebista publikorako egin duten *Jo també vull sexe!* dokumentalean. Aniztasun funtzionala duen jendeak ere sexua, plazera nahi duelako, behar duelako.

Tabu bat baino gehiago apurtu ditu dokumentalak, arrakasta handiz estreinatu: seme-alabak masturbatu behar izan dituzten gurasoak, laguntzaile profesionalei esker sexua ezagutu ahal izan duten elbarri edota garun-paralidunak, sexu-laguntzaile bihurtu diren zaintzaileak... Sozialki desiragarritzat hartzen ez diren gorputzak eta harremanak gizarteratzea da dokumentalaren helburua, baita protagonistek sexu harremanak izateko eta euren bizi-kalitatea hobetzeko duten eskubidea aldarrikatzea ere.

Ukituak ez diren gorputzak

“Gorputz hauek aldatu, garbitu edota aulkian esertzen dituzte, baina inoiz

ez dituzte besarkatzen, ez ukitzen. Niri maitasun handia inspiratzen didate eta bizi-lezio etengabea ematen didate”, dio sexu-laguntzaile batek, ordube inguruko ikus-entzunezko honetan.

TV3 katerako dokumentalaren egi-leek nagusiki bi aholkulari talde izan dituzte: aniztasun funtzionala duen jendeak zentsurarik, konplexurik eta diskriminaziorik gabe sexuaz gozatzea aldarrikatzen duen Yes, we fuck egitasmoa, eta kolektibo honen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duen Tandem Team elkarte.

Desiragarri izateko eskubidea

Izan ere, “normatibitatetik eta ezarritako kanonetatik kanpo egoteak ez dizu gaitasuna kentzen erotismorako eta sexualizatzeko; elbarriak, zaharrak... ez dira desiragarritasun mapatik kendu behar. Aldarrikatu dezagun aniztasuna”, azpimarratu zigun Eneko Oroz Ormazabalek, “Nazka mezuen aurrean, nire gorputza ez zentsuratzeak indartu egiten nau” elkarrizketan (ARGIaren 2509. zenbakian argitaratua). Halako dokumentalak aurreiritzi askori aurre egiteko bikainak direla uste du Eneko Orozek: “Garai interesgarriak bizi ditugu eta aintzat hartzeko gauza asko egiten ari dira”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Ez dago defizitik gastu militarrentzat



Juan Mari Arregi

Oharkabean pasatu da albiste bitxi eta argigarri bat, erakusten duena Europar Batasuna zuzentzen dutenek zer irizpide erabiltzen duten: Bruselak proposatu du gastu militararako funts bateratu handi bat sortzea. 5.000 milioi euro mugiarazi nahi ditu 2017 urtetik aurrera. Funts milioidun horrekin inbertsio estrategikoak –dronak, kasu– sustatu nahi ditu europar defentsarako. Hori lortzeko, ez zaio axola defizit publikoari eragitea, beste gai batzuetan tabua dena. Batasuneko exekutiboak eskaini du defizitari ez gehitzea estatuek defentsa militarrean gastatzen dutena; hau da, Bruselak ezarritako defizit muga gainditu dezakete desbideraketa plan militarrei lotuta baldin badago. Abenduaren 15ean eta 16an bilduko dira Europako estatuburuak zer egin erabakitzeko.

Defizit publikoa sakratua da soilik gai batzuez ari garenean: soldatak, pentsioak, berdintasuna, migratzaile ekonomiko eta politikoak, menpekotasuna, osasungintza, hezkuntza edo aldaketa klimatikoa. Murritzeta sozialak egiteko argudio nagusia da. EBk ikuspegi militaristaz erakutsi du zeintzuen alde dagoen: multinazionalen eta kapitalaren alde, kasu honetan armagintza industriak ordezkaturak. Neurria “justifikatzeko” ziurtatu dute inbertsio militarrek kualifikazio altuko 1,4 milioi enplegu sortuko lituzketela. Baina ez digute esan industria militarrek zerbateko etekin milioiduna izango duen. Gutxienezkoa da arma horiek pertsonak hiltzeko balio izatea, edo herriak deuseztatzea, edo milioika migratzaile Europako patu beltzera abandonatzeko. Horretarako berdin dio Europako estatuek defizit publikoa gainditzea. Eta gero eskubide sozialak murriztuko dituzte, defizit publiko sakratua defendatzeko.



DEIA

Urquijoren "moral bikoitza" salatu dute, top mantan erosten harrapatu ostean

BILBO. Espainiako legea zurrin bete dadin EAEko Auzitegi Gorenean mila helegite aurkeztu dituen Carlos Urquijo eta haren familia kale-saltzaile bati CD bat erosten harrapatu ditu *Deia* egunkariak. Gogoratu behar dugu salerosketa mota hau delitu bilakatu zuela PPk (Urquijoren alderdiak) iaz: espetxe zigorra jaso dezakete saltzaileek eta eroslearen isuna tokiko udalaren edo erkidegoaren arautegiaren arabera da. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariari moral bikoitza leporatu eta dimisioa eskatu dute EAJ, EH Bildu eta Ahal Dugu alderdiek. Urquijok erantzun du bere bizitza pribatua dela eta bere aurkako "eraso zekena" izan dela.

Preso eta iheslarien egoera gizarteratzen

Iosu Alberdi Atxurra

@atxurraa

"Kalera Kalera!" dinamikari hasiera eman diote Usurbilen. Abenduaren 10etik urtarrilaren 8ra arte iraungo duen mobilizazio zikloak presoaren auzia eta gatazkaren ondorioak jendearengana gerturatzea ditu helburu.

Abiagunea

Hasiera emateko hamarnaka preso ohi eta herritar gerturatu ziren Usurbilgo plazara. Bertan egongo da gune nagusia, Kaleragunea, eta preso ohiak osatutako talde batek egunero lo egingo du hor: 300 lagunek baino gehiagok eman dute izena.

EPPK

Euskal presoaren auzia aztertzeke eta sozializatzeko eztabaida abiatuko du EPPK-k, eta kolektiboaren egiteko hori bultzatzea da ekimen honen helburua, baita konponbidearen bidean aurrerapausoak ematea ere.

Harreman sarea

Euskal Herrian mobilizazioak, espetxeetara martxak, ekitaldi kulturalak eta mendi martxak antolatuko dituzte. Preso ohiez osatutako harreman taldea eratuko dute eragile sozial eta politiko ugarirekin bildu eta gaiaren inguruan lan egiteko.

HONDAKINAK


70.000

tona hondakin eramango ditu urtean (2017tik 2019ra) Gipuzkoak Nafarroako El Culebre tratamendu zentroa, Tuteran. Zentroaren edukiera hirukoiztu nahi du Nafarroako Gobernuak.

5,5
milioi ordainduko ditu urtero Gipuzkoak zerbitzuagatik.



PROTESTEN ARRAKASTA

Ipar Dakotako Standing Rock siuxen erreserban hilabeteak daramatzate protestan, AEBetako estatu horretatik Illinoiseraino eraikitzen ari diren petrolio-hodiaren kontra. Protesten eraginez, proiektua bukatzeko baimena ukatu dute ingeniariak.



FEMINISTALDIA

Plazandreak Emakumeen Plataforma Politikoak Donostiako Kultura Feminista Jaialdiaren XI. edizioa abiatu du, kultura parekide, parte-hartzaile eta demokratikoa aldarrikatzeko. Besteak beste, LGBTifobia, ekonomia feminista eta estatutgintza feminista landuko dira.



ESPazio KULTURAL BAIKORRA

Biba! Bilboko espazio kultural berria abiatu dute. Hiriko sortzaileak zaintzea eta saretzea eta "baikortasunetik" diskurtso berriak eskaintzeko diagnostikoa egitea dute lehentasun.

Txina hesitu ostean, haren kontrako gerrara nola garamatzaten



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Abendu hasieran aurkeztu da Londresen John Pilger kazetari australiarraren dokumental berria: "Txinaren kontra datorkigun gerra". Haren arabera, AEBek urteak daramatzate Txina inguratzen base militarrez eta neoliberalak gaina hartu ahala militarrek galdu dituzte bonba atomikoa erabiltzeko erreparaoak. Hedabide nagusien isiltasuna eta manipulazioa salatzen ditu kazetari mitikoak.

"Gerra atomikoaren inguruan dagoen isiltasuna urratzeko egin dut film hau", dio batean eta bestean John Pilgerrek. Australian 1939an sortu eta gaur Britainia Handian bizi den Pilger erreferentziazkoaren 60. dokumentala da *The Coming War on China*, frantsesez edo gaztelaniaz ikusteko (ez aipa euskarazterik oraingoz) puska batean itxaron beharko duguna.

Oso gazterik Vietnamgo gerrako kronikak lekuan bertatik igortzen zituenenez geroztik, mundu osoko gerrak eta gatazka gertutik eta baita barrutik ere ezagutu ditu Pilger beterranoak. 77 urterekin ateratzen du kemena etengabe idatzi, dokumentala egin eta deitzen dioten lekuetan hitzaldiak emateko.

"Txinaren kontra datorkigun gerrak" azaltzen ditu AEBek Asian eta Itsaso Barean barrena antolatuta dauzkan itsasoko eta aireko indar militarrek, jomugan Txina daukatenak. Filmak jorratzen ditu potentzia nagusiak darabiltzan propaganda eta probokazioak ere. "Hedabideek dioskute Txina mehatxatzen ari dela eskualde osoa, hainbat uhartetan hegazkinentzako pista eraikiz-eta; baina ezkututzen digute aurretik AEBek Txina inguratu dutela 400 base militarrez, hauek dauzkaten misil, hegazkin eta gerrako ontziekin, osatu arte estrategia militar batek 'urka-bilurra' deitu duenarekin".

Filma Marshall uharteetatik abiatzen da. Pilgerrek sarkasmoz dionez, gaur *bikini* aipatuta mundu guztiak emakumeen bi pieza laburreko bainujantzia

ulertzen du, ahaztu da janzkiari Bikini uhartearen izena eman zitzaiola hain zuzen han amerikarrek jaurtitzen zituzten bonba atomikoekin jendeen hezurak agerian geratzen zirelako.

Geroztik H bonba andana leherrarazi zuten Marshalletan, denetara osatuz txikizio ahalmen izugarri bat: 12 urtez egunero Hiroshimako bonba bat zapartatuta adinakoa. Nazio oso bat, marshalldarrak bihurtu zituzten gerra atomikoaren akuri, bertan AEBek erakiz base militar sekretuenetako bat.

Pilgerrek argitaratzen atera nahi du gerra nuklearraren posibilitateaz hedatuta dagoen isiltasuna. Dokumentalerako elkarrizketatu dituen estrategia militar batzuentzako dagoeneko gerra atomikoa ez baita imajinatu ezinezkoa, aitzitik, gerta daitekeen zerbait da. Baina munduak mehatxu nuklearra hurbil sentitu zuen Gerra Hotzaren aldean, "oraingoa fronteak ez daude hain garbi markatuta, eta arriskuak askoz handiagoak dira".

"Txinaren kontra datorkigun gerra" bi urtez filmatu du Pilgerrek, bere iritzian Txinaren eta AEBen artean beroenak diren bost frontetan, bilduz ustez munduaren martxaren jakitun garen herriarrok ere ezagutzen ez ditugun gertakizun funtsezkoak.

Adibidez, gure hedabide nagusiak behin eta berriro erakutsi dizkigute Spratly uharteak, Txinak beretzako dauzkanak Filipinekin liskarrean. Baina ez dugu aipamen handirik sentitu 2005ean hasita sei aldiz AEBek eta



Australiak elkarrekin antolatu dituzten *Talisman Saber* maniobra militarrez. Azken edizioa, 2015ekoa, Gerra Hotza bukatuz geroztik egin den handienetakoa izan zen eta bertan probak egin zituzten Malakako itsasartearen ixteko, esan nahi baita, Txinara petrolio, gasa eta klase guztietako lehengaiak Ekialde Hurbiletik bezala Afrikatik dakartzaten itsasontziei bidea mozteko.

Gerra izatekotan, nuklearra

Txinako zenbait adituren ikuspegiak ere bildu ditu Pilgerrek, gutxitan ikusten den moduan. Estrategia txinatar batek esan dio: "Gu ez gara zuen etsaia, baina zuek erabakitzen baduzue hala garelako, orduan berehala prestatu beharko dugu". Berrikitan, dio Pilgerrek, bere arma nuklearen alerta egoera maila batez larriagotu du Txinak.

AEBetako itsas armadaren aholkulari zientifiko izandako eta arma atomikoetan aditua den Ted Postolek honela azaldu du azken urteotan militarren artean bizi den giroa: "Hemen denek nahi dute erakutsi gogorrek direla. Horra, gogorra naiz benetan, ez daukat beldurrik militar arloan edozer egiteko, ez daukat beldurrik mehatxu egiteko, ni naiz gorila nagusi harroa. AEBek ezpatak dantzan darabiltzate eten gabe, eta hori goitik xaxatu egiten dute".

Pentagonoko gerra plangintzan ari tutako Andrew Krepinevich da gerrari beldurrik ez dioteneko bat. Txina zigortu nahi du bere defentsa lerroak hego



John Pilgerrek 'The Coming War on China' dokumentalean erakusten du nola daukaten AEBek Txina hesi militarrez inguratua. Hedabide nagusiek biderkatuak propagandak sinetsarazten duen arren Txina ari dela halako hedatze bat egiten Ozeano Barearen hego aldetik, grafikoak ez du AEBen nagusitasunaren eta Txinak arriskatzen duen blokeoaren zalantzarik uzten.

aldera zabaldu izanagatik. Itsasoa minaz bete eta Txinako trafikoa blokatzea proposatzen du: "Gure lehen presidente George Washingtonek zioen bakea nahi baduzu gerra prestatu behar duzula".

Kontua da Gerra Hotzaren garaian, 1960ko hamarkadan AEBek eta Sobiet Batasuna gudu nuklearren ateetara behin eta birritan hurbildu ostean, potentzia handiek antolatu zutela halako kontentzio estrategia bat; gaur eraitsita dago, edozein taktika eta kalkuluri bide zabalduz. Adituek filmean barrena azaltzen dute nolaz gatazka mugatu bat, bi arerioek elkarren intentzioak oker ulertu eta neurtzearen poderioz, bilaka daitekeen gerra atomiko erabateko.

Pilger oso kritikoa azaltzen da AEBen morroiitsuak garen mundu aberatseko jendeekiko. Bere sorterri Australia yankien estatu bat gehiagotzat dauka.

Japoniaz dio funtsean AEBen kolonia izaten segitzen duela, bestelako itxurak eginagatik. Eta Europaz, okerreko irizpidez Magreb eta Ekialde Hurbileko egitura politikoak suntsitzen laguntzearen ordainak ari garela pagatzen, batetik etxean atentatu gehiago jasoz baina are larriago guregana datorren etorkin eta iheslari uholdeak harrapatuak.

Guztia estaltzen du Txinarekiko belduraren propagandak. Pentagonoaren komunikazio arduradun Harry Harris almiranteak, Asia eta Itsas Bareko komandante militarra denak, *New York Times*ek bere lan eremuaz galdeturik erantzun zion: "Nire erantzukizuna iristen da Bollywoodetik hasita Hollywooderaino, hartz polarretatik pinguinoetaraino". Labur bezain argi.

Filmak bildu ditu gerra egiturei aurre egiten dieten herritarren mugi-

menduak ere. Zehazki bi. Okinawa uharte japoniarrak 35 base militar dauka. 1995ean soldadu yankiek 12 urteko neskato bat bortxatu ostean oldartuz geroztik, baseen kontrako mugimendua indartuz joan da eta gaur uharteko gobernadore den Takeshi Onaga base militarren kontra nabarmentzen da.

Hego Korearen Jeju uhartean, Seulgo gobernuak AEBei eskainitako base militarra zabaldu nahi du Gangjeong arrantzale herrixka deseginik. Egunero herritarrek eta atzerriatik iritsitako askok basearen ataria blokatzen dute Mun Jeong-hyeon apaiz katoliko zaharrak meza ematen duela: "Lau aldiz kantatzen dut basean, eguraldiaren axolarik gabe. Ingurumena eta herritarren bizia bera suntsitu nahi dituzte eta guk eman behar dugu lekukotasuna". ■



zuri begira



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Patxi Irurzun, idazlea

«Ematen du liburuek gero eta gutxiago inporta dutela eta idazleak gerra eman behar duela»

Patxi Irurzun idazle iruindarra beti izan da ausarta, zuzena, kritikoa, samurra eta umoretsua; gehienetan garrantza eta ziztakaria. *Los dueños del viento* bere lan berria belak zabalik doa. Hiri girotik aldenduta, ezohiko abentura honetan sorginak eta euskal piratak, zigortuak eta baztertuak, egin ditu protagonista.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Idazle profesionala zarela esan daiteke. Oso gutxi zarete halakorik esan dezake-zuenok, ezta?

Orain idazlea naizela esan daiteke, baina oso modu prekarioan bizi naiz, eta emaztearen eta bion artean moldatzen garelako. Hainbat gauza egiten ditut liburuei esker soilik bizitzea oso zaila delako. Lehen ere, hona iritsi aurretik, denetik egin izan dut: Porcelanas del Norte eta beste zenbait lantegitan aritu naiz, ondoren kale garbitzailea izan nintzen, liburuzaina Altsasun eta Faltzen, kazetari gisan egin nuen lan komunikazio agentzia batean handik kaleratu arte...

Idazle izateko grina betidanik izan duzu?

Nik uste dut baietz. Bost edo sei urterekin nire lehen ipuina idatzi nuen. Gogoratzen dut mendira joan ginen egun batean min hartu nuela eskuan eta amak papera eta arkatza eman zizkidala entretentzeko. Ipuintxo bat idazten aritu nintzen, beste haurrekin nola ari nintzen jolasean kontatzen.

Zer da literatura zuretzat?

Errealitatean egin ezin ditudan gauza

batzuk egitea ahalbidetzen dit literatura. Beste pertsona batzuen larruazalean sartzeko aukera ematen dit. Literatura niretzat dena da eta ezin ditut banatu nire bizitza "zibila" eta literarioa.

Baina zure liburuen egilea eta zu oso desberdinak zarete.

Ni oso pertsona barnerakoia naiz eta kosta egiten zait harremanetan hasia ezezagunekin, horregatik niretzat literatura aterabide bat da. Gutxiago kostatzen zait idaztea hitz egitea baino. Jende asko harritzen da ni ezagutzen nauean nire idazki zatar samar batzuk irakurri ondoren. Bada konpentsazio mekanismo bat.

Beraz, kontu pertsonalak adierazteko lotzarik ez?

Ez bereziki. *Dios nunca reza* eguneroan, esate baterako, nire bizitzako uda bat kontatu nuen. Lanetik kaleratu berria eta bigarren umearen zain geunden eta nik galdetzen nion neure buruari ea nori interesatzen ahal zitzaizkion halako istorio pertsonalak, baina ezustekoa izan zen jende asko identifikatuta sentitu zela.

Patxi Irurzun Ilundain

1969, Iruñea

Filologoa ikasketez, idazlea, kazetaria eta etxekogizona lanbidez. 19 urterekin argitaratu zuen lehen ipuin bilduma: *Cuentos de color gris*. Geroztik ipuin asko eta 38 liburu plazaratu ditu mota eta gai oso anitzekoak. Aurten, *Ultrachef*, sukaldaritza lehiaketei kritika egiten dien liburua, *Pan duro* eleberri surrealista, Radio Euskadiko *Caerás en el infierno* irrati nobela eta Harper Collins munduko bigarren argitaletxe garrantzitsuenarekin *Los dueños del viento* eleberria argitaratu ditu. Bere artikulu eta elkarrizketak *Diario de Noticias*-en eta *Gara*-n irakur daitezke, bi irakurketa taldetako arduraduna da, bi seme-alaben aita eta etxekogizona ia jardunaldi osoz. Euskaldun berria, EGArekin borrokan dabil.



Gero eta zailagoa da idazlearen pribatutasuna gordetzea?

Gaur egun artistak askoz ere gehiago erakutsi behar du bere burua medioetan eta sare sozialetan. Gauza bat da sormen lana eta bestea zure bizitza pertsonala, baina gero eta nahasiagoa agertzen da dena.

Ematen du liburuek gero eta gutxiago inporta dutela eta idazleak gerra eman behar duela alde guztietatik. Ni batzuetan astuna sentitzen naiz, beti matraka ematen zer egin dudana, non ibili naizen kontatzen.

Erritmo gero eta azkarragoan bizi gara?

Gero eta gehiago kostatzen da denbora pixka bat bilatzea liburuak, egunkariak, aldizkariak... irakurtzeko. Berri osoak irakurtzea arraro bilakatzen ari da gaur egun. Eta literaturan ere antzematen da. Adibidez, harrigarria egiten zait entzutea nola *Los dueños del viento* "nobela literario" bezala aurkezten duten. Eleberrri bat literarioa ez denean, zer da? Denbora pasa hutsa? Kontsumo azkarreko irakurketa batere hondarrik, arrastorik, uzten ez duena? Hala omen da, eta nik uste dut gauzak hortik doazela. Hori da modu masiboan komertzializatzen den literaturak bilatzen duena.

Batzuetan pentsatzen dut idazleok ez ote garen galzorian dagoen espeziea. Beti sentitu naiz bitxi samarra, baina azkenaldi honetan gehiago. Istorioak kontatzea da inoiz desagertuko ez dena. Hori bat dator gizakiarekin. Beti gertatu da eta gertatuko da eta hortik datorkit itxaropena.

Ipuina da gehien maite duzun generoa?

Bai. Ipuinekin hasi nintzen eta nire genero kuttuna da. Oso esker onekoa da, oso egokia gaur egungo bizimodurako, eta halarik ere, uste dut prestigioa, izen ona, falta zaiola.

Agian, ipuin beharrean, "narrazio laburra" esan beharko genuke, edo hobe "narrazio labur literarioa"...

Horixe baietz! Idazle ezagun batek zioen ipuinen artean eleberriren bat edo beste idazten zuela eta niri gauza bera gertatzen zait. Umoreak ere ez du oso izen handirik, horregatik pozten nau Cervantes saria Eduardo Mendozari eman izanak. Umorezko literaturari aitorten moduko bat izan da.

Ipuin sorta izan zen zure lehen liburua.

Bai. 19 urterekin Palentzia Hiria literatura lehiaketa irabazi nuen *Cuentos de color gris* lanarekin eta hango udalak argitaratu zuen. Sari emate ekitaldian kontu bitxia gertatu zitzaidan, gainera: 75.000 pezetakoa zen saria. Kultura zinegotziak diru zorroa eman zidanean barnean begiratzea otu zitzaidan eta ohartu nintzen diru puska bat falta zela. Lotsa-lotsa eginda esan nion eta bar-kamena eskatuz eman egin zidan falta zena. Eta hara non, handik urte batzuetara, egunkari batean ikusi nuen ustelkeriagatik kondenatu zutela!

Sorpresak

"Bizitzan dudana lotsa guztia galtzen dut idaztean. Idazleak, oro har, ez dira imajinatzen ditugun bezalakoak, horregatik batzuetan idazleak ezagutzea ez da komeni izaten".

Demokrazia

"Kortsario eta piraten kofradien arauak oso bitxiak ziren: ondasun pribaturik ez zegoen eta buruzagiak denen artean aukeratzen zituzten. Batek abordatze batean gorputz atal bat galtzen bazuen diru sari bat kobratzen zuen trukean. Demokrazia zuzenaren oso adibide interesgarria iruditzen zait. Gure gaurko demokrazia baino aurreratuagoa behintzat, bai".

Aurreiritziak

"*Los dueños del viento* liburuan euskal-nafar kultura 'gehiegi' omen dago editore batzuen ustez. Aurreiritzi pila bat daudela ikustean izoztuta gelditzen zara".



Iruñea eta giro underground samarrak bikain erretratatzeko dituzu. Belaunaldi bateko bozeramailea sentitzen zara?

Nire literatura, oro har, nahiko autobiografikoa da, azken liburua kenduta, eta nire belaunekoentzat kontu eta keinuak badira askotan. Hala ere, oso erregistro desberdinak erabiltzen ditut. Jende askok, esate baterako, orain ezagutu nau lan berri honekin, eta ez dakit zer senti dezaketen lehenagoko idazle hori ezagutzean, ironikoagoa, liburu zatarragoak dituen.

Zer-nolako garrantzia du musikak zure testuetan?

Handia. Ni musikari frustratua naiz. Askok gustatu izan zait musika beti, rocka bereziki. Arte adierazpen zuzena da, zirrara biziak eta primarioak eragiten dituen. Inoiz ez naiz ona izan musikan, eta horregatik, agian, askotan egoten da nire liburuetan. Azken eleberrian Drogas eta Kutxi Romero nire idoloak agertzen dira.

Euskara ikastea errebeldiaren seinalea izan da zuretzat?



Bai, neurri batean bai. Guri dagokigun gauza bat kendua zigutela sentitzen nuelako hasi nintzen ikasten. Neure buroarekiko betebeharrak bat zen. Amaren familia Iruñea ondoko Uhartekoa zen, Obrena (Hoberena) etxekoa. Hala ere, adinek pertsona batzuen ikusi duen euskararen arbuioa, ia gorrotoa, mingarria egin izan zait beti.

Ez naiz oso konstantea izan ikasten, baina azkenaldi honetan berriz eutsi diot. Etxean hurrekin hitz egitea oso zaila suertatzen zait, haien artean ere arraro egiten delako, baina egunero entzuten dut irratia, irakurtzen dut, idazle interesgarri batzuk ezagutzen ari naiz, elkarriketak egiten ditut... Harro eta kontent nago.

Eta idatzi?

Saiakeraren bat egin dut, baina oraingoan oso zaila ikusten dut.

Bi irakurketa taldetako gidaria zara. Gorantz doan ekimena da?

Nik uste dut baietz. Itxaropen pixka bat ematen du. Hasieran oso mesfidati begiratzen nuen, baina berehala ikusi nuen

zein aberasgarria izaten den ideiak partekatzea irakurleen artean. Gainera, klub hauek irakurgaiak aurkitzeko balio dute. Agian, beste modu batez iritsiko ez ginen liburuetara heltzeko bide bat da.

Aurten *Ultrachef* libururen hitzaurrea idatzi duzu. Liburua telebistako sukaldaritza lehiaketei egindako kritika dibertigarria da.

Oso ongi pasa dut. Miren Lacalle, Las Tampones punk talde mitikoko abeslari ohiak idatzitako lana da. Nik argitaratzen lagundu baino ez dut egin. Gainera, Edorta Lamo sukaldari donostiarra animatu zen liburuan agertzen diren ezinezko pintxoak egitera eta sekulakoa izan da. "Erromes gazta", "arratoi hegalarien foie-a" eta "zingirako fruituen arrautzopiltoak" bezalako pintxoak egin zituen. Hor dago Miren eta gauza gehiago enkargatzeko asmoa dut.

Irrati-nobela ere idatzi duzu, *Caerás en el infierno*.

Radio Euskadin eskatu zidaten. Australian eta beste toki batzuetan, batez ere jende gaztearen artean, oso modan dau-

delo esan zuten. Erronka bezala hartu nuen, nire esperientziatik abiatuta, beste eredu gehiegi erreparatu gabe. Ohartu nintzen baliabide asko eta umorea sartzeko aukera zela. Eskupitajo talde mitikoaren itzulera kontatzen du. Oso dibertigarria izan zen egitea. Gero, emaitza ez da zehatz-mehatz zure imajinatzen duzun bezalakoa, baina tira...

***Los dueños del viento* da zure lan berriena. Sorginen eta piraten artean murgildu zara oraingoan. Zuk aukeratu dituzu piratak edo haiek zu?**

Haiek ni, nire ustez. Denok daramagu barnean pirata bat eta nik nirea berpiztu dut. Txikitan bezala, piratetara jolasen aritu naiz. 2004an sortu zen ideia. Piratari buruzko irakurgai, filma eta musika gida bat aurkitu nuen. Musikarena iruditzen zitzaidan bereziki interesgarria eta gaiaren inguruan ikertzen hasi nintzen. Horrela iritsi nintzen euskal piratenganaino.

Hamabi urteko bidaia luze eta zaila izan da. XVII. mendean kokatua dago eta asko irakurri eta ikertu behar izan dut. Horregatik, bitartean, beste zenbait liburu idatzi ditut.

Zer dira piratak, heroi edo alprojak?

Piratak halabeharrez bilakatzen ziren pirata. Europako jende pobre eta baztertuena zen. Askotan arlosteak, delinkuenteak edo Amerikan ihes egindako esklabo beltzak izaten ziren. Nire protagonistak, Zugarramurdiko Joanek de Sa garmin, sorgintzat hartutako emakume baten semea da. Dena galdu ondoren, itsasoan izanen du irtenbide bakarra.

Alboka jotzen du. Zergatik?

Itsasontzi piratetako eskifaietan musikariak oso garrantzitsuak ziren. Alboka aukeratu dut oso doinu potentzia delako. Arnasa zirkularra da eta horrekin jokatu nahi izan dut: alboka jotzean protagonistak gogoratzen dituen galdu dituen sorlekua, etxea, familia, hizkuntza...

Keinuz betetako liburua da?

Piraten abestietan El Drogas, Kutxi Romero eta Kirmen Uriberen letrak daude. Eta keinu literarioak ere egin dizkiet *Altxorren Uharteari*, *La Celestinari* eta Cervantesen hainbat lani. Sarrionandia ere liburuan dago, protagonistak ere defendatzen duelako euskara dela gure territorio libre bakarra.



Patxi Irurzunen lanak adina Patxi Irurzun

Mi papá me mima artikulua bilduma, gurasotasunaren alde errealista, samur eta diberti-garriena; *¡Oh, Janis, mi dulce y sucia Janis!*, pornoaren izar bilakatzen den kale garbitzaile baten istorioa; *Pan duro*, absurdoak diren gauzak gerta daitezkeen Zarraluki herrian kokatutako gazteentzako eleberria; *Dios nunca reza* egunerokoa; *Atrapados en el paraíso*, Manilan dagoen Payatas, munduko zabortegi handienera eginiko bidaiaren kronika; *La tristeza de las tiendas de pelucas*, ipuin sorta Euskadi literatura lehiaketaren finalista 2014an; *La virgen puta*; *Ciudad retrete*; haurrentzako liburuak; Nafarroako kondairak...

Sorginen inguruan zein da atera duzun ondorio nagusia?

Emakume batzuen kontrako errepresio modu bat izan zela. Saiatu naiz azalpen logikoak ematen. Adibidez, Urdazubiko jendea abadearen mendekoa zen eta Zugarramurdikoak, aldiz, askeak, horregatik saiatzeko ziren kontrolpean hartzen. Ustezko sorginen aurkako prozesuen atzetik kontrol nahia eta mendeku "domestikoak" daude.

Euskal Herriko kultura eta historiako gaiak jorratu nahi izan dituzu bereziki lan honekin?

Bai, eta arazoak ere izan ditut alde horretatik. Euskal Herrian kokatua izatea eta abesti batzuk euskaraz agertzea, esate baterako, argitaratzaile batzuen tzat eragozpena zen. Ikuspegi politiko-tik ikusten dituzte batzuek kontu horiek eta hori gainditzea kosta egiten da. Oso etsigarria suertatzen da. Hala ere, ni pozik nago eta liburu honi esker irakurle batzuek harreman txiki bat izan dute kultura honekin, beste modu batera izanen ez zutenak.

Harper Collins argitaletxe handiak kaleratu du liburua, nolako esperientzia izan da?

Munduko bigarren argitaletxe handiena da. Sei mila aleko tirada egin zuten eta orain bigarrena abian da. Espero dut lagungarria izatea hemendik kanpora ere nire lana ezagutzera emateko.

Bide beretik segitzeko asmoa duzu?

Lana eta zailtasunak kontuan hartuta, berriro eleberri historiko batean sartzeko batera gogorik ez nuen, baina honen arrakasta ikusita pentsatzen dut, agian, egoista dela ezetz esatea. Argitaletxe-ko oso kontent daude eta Madrilen egin genuen aurkezpenean animatu ninduten jarraitzeko.

Eta orain zer duzu eskuartean?

Paris 365 elkartasun jantokiaren enkarguz ari naiz narrazio bilduma egiten. Historia pertsonalak dira, hamar pertsonen bizipenetan oinarritutako narrazioak eta batzuk oso gogorrak. Patera batean etorritako etorkinak, etxerik gabeko familiak... ■



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

**Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako**

☎ 943 650 253

www.tolosakobabarruna.eus



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Elikadura zerga



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Jakina da, osasun publikoaren arazo larrienetakoa elikaduraren kalitate txarra da. Arazo hori da dagoeneko, munduko gaixotasunen eta bizi kalitatearen galeraren arrazoi nagusia. Gaur egungo elikadura ereduak gero eta gehiago gaixotzen gaitu. Azken bi hamarkadetako dieta aldaketa dago horren atzean, izan ere, egun jaten dugunetik ia hiru laurdenak janari prozesatuak dira. Euskal Herrian, mende-baldeko beste herri industrializatueta bezala, azukre, koipe kaltegarri eta gatzaren gehiegizko kontsumoa dago. Arrazoia ez da hainbeste norberak egiten duen hautua, elikaduraren industriaren izugarritzko boterea baizik. Izan ere, botere erraldoi horrek elikagaien ekoizpen eta kontsumo sistema baldintzatzen du eta erabaki politikoetan sarbide zuzena du.

Elikadura eredu horrek baditu gutxienez bi ondorio aipagarriak osasun arlo estuaz harantz, baita arlo sozioekonomikoan ere. Lehenik, elikadura eredu kaltegarriak osasun sistema publikoaren aurrekontuan eragin du. Munduko Osasun Erakundearen (MOE) arabera, elikagai kaltegarrien kontsumoak erantzukizuna dauka gaixotasun kardiobaskularren, diabetesen kasuen erdietan eta minbizi mota batzuetako beste horrenbestetan. Horrek osasun sistema publikoan eta bere aurrekontuan eragin ikaragarria du, MOEren estimazioak aurrekontuaren %20raino igotzen du eragin hori.

Gainera, eraginaren tamaina desberdina da pertsonaren errenta mailari erreparatzen badiogu. Janari osagarria, ekologikoa edo kalitatezkoa elikagai prozesatuekin alderatuta garestiagoa da, beraz, errenta apaleko jende gero eta ugariagok ezin du osasuntsuagoa den elikagairik ordaindu. *Overseas Development Institut* erakundearen txosten batek bost herrialde-

Overseas Development Institut erakundearen txosten baten arabera, fruituen eta barazkien prezioek urteko batez beste %2 eta %3 bitarteko igoera izan dute sasoi honetan, aldiz, elikagai prozesatu gehienen prezioa apalagoa da hogeita bi urte hauen buruan. Bilakaera hori ikusita, Espainiako Estatuko biztanleriaren ia erdiak eta Hego Euskal Herriko herenak baino gehiagok ezin ditu elikagai osasuntsuak ordaindu

ko bi elikagai moten prezio bilakaera aztertu du 1990-2012 urteen aldian. Fruituen eta barazkien prezioek urteko batez beste %2 eta %3 bitarteko igoera izan dute sasoi honetan, aldiz, elikagai prozesatu gehienen prezioa apalagoa da hogeita bi urte hauen buruan. Bilakaera hori ikusita, Espainiako Estatuko biztanleriaren ia erdiak eta Hego Euskal Herriko herenak baino gehiagok ezin ditu elikagai osasuntsuak ordaindu. Gainera, azterketan ez dira sartzen garestiagoak diren elikagai ekologiko edo biologikoak. Ondorioz, errenta apaleneko pertsonak saihesgarriak diren gaixotasunak sarriago izatera kondenatuta daude.

Elikagaien merkatuaren eragin sozial horri aurre egiteko, beste neurri batzuen artean, elikadurarako zerga politika tresna egokia izan liteke. Elikadura osasuntsua saritzea eta kaltegarria zigortzea litzateke zerga politika horren bidea, betiere, politika sozio-sanitario publiko eta berdinzalearekin koherentea dena eta errenta gutxiko populazioak elikagai osasuntsuak eskuragarri izateko helburua lehenetsita.

Neurri hori ez da berria. MOEren Elikadurari eta Nutrizioari buruzko Europarako Ekinbide Planak (2015-2020) elikagaien erosketan eragina izan dezaketen prezio eta zerga politikak lehenesten ditu. Erresuma Batuan elikagai gehienen Balio Erantsiaren Zerga zero da, aldiz, freskagarriena, zizka-mizka gatzatuena edo zuku azukredunena %20. Coca-Cola eta azenarioak zerga zama bera izatea ulergaitza da osasunaren ikuspegitik. Elikadura kaltegarriaren eragina ezkutukoa izateak ez du esan nahi osasun publikorako arazoa ez denik. Zerga politikak ere zuzentzea beharrezkoa da hurrengo belaunaldiak kondenatu nahi ez baditugu. Interes orokorra elikagai industriaren interesen gainetik egotea nahi badugu bederen. ■

Euskararen Egunaren biharamuna eta bestondoa!

Hu irakurtzen duzuenean, iragan berri izango dugu Euskararen Nazioarteko Eguna. Era batera edo bestera ospatuko zenuten, eta neuk ere bai noski. Alexander von Humboldten duela berrehun urteko iragarpena ez da oraindik bete; eta hainbat arlotan badira motiboak Euskararen Eguna ospatzeko. Baina hori esanda, ezin ezkutatu zein soziologia, zein kale eta ostatu espainolak ditugun Hegoaldean, eta zein frantsesak Iparraldean!

Hilabete pasatxo da Hazparneko ostatu batean izan nintzela. Izan dira eta badira han norbait direnak euskalgintzan: Martin Larralde *Bordaxuri* bertsolaria, Jean Hiriart-Urruti kazetari handia, Piarres Xarriton eta Janbattitt Dirassar idazleak, antzerkilariak... Herria, berriz, Lapurdiren ekialdean kokatua, lurrez Lapurdiko handiena eta biztanlez hazi samarra, sei bat mila bizilagunekin. Mila eta berrehun bat elebidun ba omen dira bertan, eta kaleko euskararen erabilera: %2,5.

Herriguneko ostatu ezagun batean gelditua nintzen teatrogile ohi batekin. Sartu nintzenean jendea bazen, denak frantsesez mintzo. Zerbitzari elebidunak agurra frantsesez egin zidan; nik euskaraz ekitean, berak ere hala erantzun zidan. Solaskidea heldu zenean, erran baitzidan giro arrotza zela ostatuan, gibeiko barne berezira iragan ginen, han euskaraz elekatzera.



Pako Sodupe

IDAZLEA

Euskaldun osoak ere menderatuak gauzkate, asimilatuak, hein kezkarriak, soziologiak eta bereziki espainol hedabideek hemen, eta frantses hedabideek han

Solasaldia bururatzean, duela hogeita hamabost urte Hegoaldetik hara joandako gizon batekin mintzatu ginen. Nire solaskideak erran ziolarik Hernanitik nentorrela:

–Bai, bi mundu dira hangoa eta hementz. Zuentzat erraza da euskaltzale eta abertzale izatea; hemen, aldiz, egunero baieztatu beharrekoa. Duela gutxi aitatz

bat lehenbiziko aldiz entzun dut euskaraz bere bilobarekin. Ez nekien euskalduna zela. Maiz ikusten da hemen bi euskaldun elkarrekin frantsesez ari, nahiz eta maiz azentuak salatzen dituen euskaldunak direla.

Teatrogile ohia ados zen, baina ñabar-durekin: “Hazparnen lehen gehiago egiten zen; orain gazteek Aiherran eta Lekornen-eta ematen dute, baina hemen, Hazparnen: oso beheratuak gara!”.

Hainbesteko aldea ote handik hona? Hernanin, bizi naizen auzoan, espainol giroa da erabat nagusi kalean eta ostatuetan, Hazparnen giro frantsesa bezainbat. Herrigune zaharrean euskara gehiago entzuten da, baina bi euskaldun gaztelaniaz hizketan entzutea arrunta da, eta elkarriketa euskaraz hasi eta gaztelaniaz amaitzea are arruntagoa. Eta inguruko herrietan beste horrenbeste.

Euskaldun osoak ere, eta ez gara dozenan hamahiru han eta hemen, menderatuak gauzkate, asimilatuak, hein kezkarriak, soziologiak eta bereziki espainol hedabideek hemen, eta frantses hedabideek han.

Burujabetza politikoan gabezia handiak, eta burujabetza kulturean are handiagoak. Zein soziologia, zein kale eta ostatu espainolak ditugun Hegoaldean, eta zein frantsesak Iparraldean! ■

ITZAL ZAUNKA

Antton Olariaga (marrazkilaria)
Harkaitz Cano (idazlea)
Jexuxmai Lopetegi (musikaria)

Zakur existentzialista baten hausnarketak

disco-liburu ilustratua

www.elkargaitexea.eus **elkar**

Motibatzailea



Koldo Aldalur
KAZETARIA

Suposatzen dut profesional mailako kirol munduan, ohiko entrenatzaileez gain, psikologo, fisio, podologo, homeopata, kiropraktiko, akupunturista, musikoterapeuta, ileapaintzaile, estilista, sasimediku eta era guztietako petrikilo eta abarren artean motibatzailearen figura ere izango dela. Badakizue, eliteko kirolari berezko nagi aski sufrituak lanerako gogorik ez duenean, galtza motzak janzteko arrazoi bat aurkituko dion pertsona.

Gure herrian badugu bat fin askoa: Juan Mari, inoiz kirolik egin ez duen kirol aditua. Fenomenoa berean.

Han egoten da plazako paisaiaren parte bailitz, udaletxeko erlojupeko eserleku luzean norbait motibatzeke prest. Beti lanerako.

Ea. Jaiki zara goizean goiz ohearen epela utzita eta goiz osoko mendi buelta eman duzu udazkeneko lokatz eta ehiztarien tiro hots artean, eta ezusteko zaparradaren ondorioz tximu eginda herrira itzuli zarenean, hor duzu motibatzeke esaldi bat oparitzeko erne:

– Marka ederra egingo huen gaur ere. Deituko zieat Mendi Film Festibalekoei erreportaje bat egin nahi baditek ere.

Edo hartu duzu bizikleta eta iragarrita ez zegoen hego haizearen aurka lepondoa erabat behartu eta gero, derrigorrez erlojupetik pasatu behar izan duzunean, zera gogoratuko dizu:

– Bizikleta horrek zerbait badik, derrigorrez. Edo frenoaren takoeak gorpila ukitzen ditek, edo katea ez zebilek behar bezala pinoien hortzetan,

bestela ez duk posible daramaan martxa. Egun batean lo hartu behar duk gainean hoala!

Eta saiorik egiteko aukerarik ez izanda ere ez da askoz goxoagoa izango motibatzailearen aholku beti eraikitzailea:

– Berriro ere ibiliko haiz hi taldekoei segitu ezinik. Jakina, hamarrak arte lo egingo huen. Seguru nagok nahiago huela dentistanean goiza pasa, eserita egotekotan, jakina, izerdi tanta bakarra atera baino.

Nahiz eta berari natural-natural ateratzen zaion Juan Mari kobratu egin beharko luke egi-ten duen motibazio lanagatik.

Hamaika aldiz gertatu izan zait kilkerraren atzealdea baino beltzagoko ekaitza kolpetik agertu izanaren ondorioz, aurrez pentsatutako lekuraino joan edo ez, zalantzan nabilenean, neurere buruari esatea: “Hoa gora bestela Juan Mari nonbaitetik enteratuko duk eta jesusenak entzun beharko dituk”. Eta ahalegina egiteaz ez naiz sekula santan damutu.

Beraz, *wearable* teknologia eskuragai izango duzu, sentsore adimendunak lagun, eta titanio dioxidozko nanotuboak bezalako kontzeptuak menperatuko, baina horiek ez dute balio berez alperre den gorputza akuilatzeke. Galdetu bestela aste honetan bertan jokalaria motibatzen lanak izan omen dituen lehen mailako futbol entrenatzaileari.

Juan Mari sartu dezala aldagelan. Epelak entzun beharko dituzte, entrenatzaileak berak, eta jokalariek. ■

Pisua eta hegalak



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetxe

Garikoitz Goikoetxeak esana da, *Euskara irabazteko bidean* liburuaren egileak: “Gazteei buruz hitz egiterakoan, hasi beharko genuke haien gain uzten dugun erruaren zama kentzen”. Izan ere, nork nahi du errudun sentiarazten duen diskurtso bat? Liseriketa errazagokoa da erakargarritasunaren diskurtsoa, bere aldaera mainstream zein hipsterragoetan.

Milan Kunderak azaltzen du kontzeptu antagoinikoak erraz kokatu daitezkeela polo positibo eta negatibotan: argia-iluna, beroa-hotza, izatea-ez izatea... Salbuespen bakarrarekin: pisua eta

arintasuna. Eta oroitu naiz eskola batean ikusitako irudiaz: Obelix, bere obeliskoa bizkarrean, eta obeliskoaren barruan esaldi koloretsu bat: “Euskaraz bizi nahi dut”. Eta eskola bereko atarian euskararen txantxangorria kristalean, arina izanagatik hegaldatzeko hego txikiak dituen.

Ez dakit nolakoa behar duen euskalgintzaren “diskurtso berriak”, baina arinkeraren eta astuntasunaren artean eremu bizigarri bat sortu beharko du, tokian tokikoa eta unean unekoa. Kontua ez baita euskarak pisua badaukan ala ez daukan. Kontua da ea hegan egiteko balio digun. ■

Ezker-eskuin

Eskuma eta ezkerre bereizten ikasi egiten dugu, bost urtetik aurrera edo. Baina jende asko dago ezkerre eta eskuma nahasten dituenen. Gure auzokoa horietako bat da. Badoa Kapstadt hiritik autoa gidatzen, gauez, eta ondoan duen lagunak ematen dizkio jarraibideak. Lagunak ere nahastu egiten ditu ezker-eskuin. “Ezkerretara”, esan dio lagunak bidegurutze batean. Ez, ez! “Beste” ezkerre.

Bukatzeraz doan 2016. urteak lezio batzuk eman dizkit ezker-eskuin auzian. 2015. urtearen atarian hasi zen garai berria. Horrela aurkeztu zuten Greziako Gobernua osatzeko (ezkerreko) Syriza eta (eskumako) Greziar Independenteak elkarrekin osatu zuten koalizioa. Kategoria zaharkituak omen ziren ezkerre eta eskuma. 2016. urteko gertaera politikoek, bozetan adierazitako jarrerak behinik behin, lagundu didate ulertzen, zergatik dauden ezker-eskuin horren hurbil. Eta, ai, horren urrun!


Oinarrian oso sinplea da mekanismoa: zentroko politikari ei direnek ez badiote jende arruntaren kezkei erantzuten, jende arrunta zentrotik mugitu behar da, eta muturretara joan.

Alemanian boto-emaeleen kontrako politika egin dute zentroko taldeek, *Volkspartei* deritzotenek, herriaren alderdiek. Sozialdemokraziaren ezkerrean kokatzen den Die Linke nagusi izan den lurraldeetan, berdin; huts egin die boto emaleei. Eta hara, Angela Merkelen alderdiaren eskuman kokatu den talde batek egin du sarrera joko politikoan, AfD alderdiak. Nori eta Die Linke-ri kendu dizkio boto asko, non eta hauek indarra zuten tokietan. Azken batean, mutur bat eta bestea hurbil daudela aditzera ematen digute, berriz ere. Frauke Petry, talde eskuindarrekoa, Marine Le Penekin ondo konpontzeaz gain, Die Linkeko Sarah Wagenknecht-ekin ere ondo moldatzen omen da.



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

Elkarrekin eman duten elkarriketa baten harira, bien arteko elkarguneak azpimarratu izan dituzte komunikabideek: Europar Batasunaren demokrazia defizitari egiten dioten kritika, TTIP eta CETAr ezetza edo Deutsche Bank-aren balizko erreskate publikoaren kontrako jarrera.

Gerta liteke, beraz, Grezian bezala, koalizioa osatzea? Nazionalista eta arrazista izatea egotzi dio Wagenknechtek AfD-ri. Frauke Petrik ez(in) ditu esan edo sare sozialetan argitaratu Donald Trumpen adinako astakeriak, baina aurpegiratzan zaio alderdiko zenbait kideen mezu iraingarrietatik distantzia ez hartzea; hauek onartzea, publiko mota batengana heltzeko asmoz.

AEBetan ez da zentroko muturretan sortutako alderdietara joan botoa; nahikoa izan da alderdi tradizionalak batean hautagai hiperboliko bat jartzea. Baina han ere, Trumpen mezu diskriminatzaileak alde batera utzita, hark aipatzen dituen behar batzuetan zuzen dabilela adierazi du Bernie Sanders senatariak berak. Hauteskunde ondoan CNN katean emandako elkarriketan klase ertainen, klase langilearen beharrez aritu zen Sanders. Bat dator Trumpen programan izan dituen hainbat gairekin: gutxiengo soldaten igoera, azpiegiturak berregiteko premia, TTIP eta beste itun transnationalei ezetza. Iparramerikarrek askotan oso argi esan ditzakete gauzak, denok ulertzeko moduan: haserre egoteko arrazoiak badaudela esan zuen Sandersek, koska dela haserre hori nora bideratu. Zeren eta, ezkerre edo eskuinera bideratu, ez da bigarren mailako gauza. Nola izango da berdin? Musulman, latino, emakume, homosexualei bideratutako irainak aintzat ez hartu? Ezkerre eta eskuma ez dira gauza berbera. Ez dira, ezinegon berari (gauden lekuan egoten jarraitu ezinari) erantzuna ematen diotenean ere. ■

#bbt16 Finala

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

*bizkaiko bertsolari
txapelketa 2016*



BILBO

Bilbao Arena (Miribilla)

Abenduaren 17an, 17:00etan

Beñat Ugartetxea Ostolaza, Etxahun Lekue Etxebarria,
Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia, Jone Uria Albizuri,
Miren Amuriza Plaza, Nerea Ibarzabal Salegi,
Onintza Enbeita Maguregi, Xabat Gallettebeitia Abaroa



Antolatzailea



Babesleak



Laguntzailea



Sarrerak:

www.bertsosarrerak.eus
edo txarteldegian abenduaren 17an 14:00etatik aurrera

NAFARROAKO GOBERNUAK OZTA-OZTA GAINDITZEN DU GIZARTE MUGIMENDUEN BALORAZIOA

Nafarroako hamalau gizarte mugimendurengana jo dugu Foru Gobernuaren 16 hilabeteko kudeaketaren balorazioa eskatuz. Lagin txiki bat da alde horretatik, baina izen-abizenekin egindakoa da eta, beraz, garrantzitsua. Gehienetan kontuan hartzen dira Uxue Barkosen Gobernuak bultzatutako aldaketak, eta ondo baloratu, baina ondorio bat da nagusi: askoz gehiago egin behar du. Bada halako kutsu ezkorra aurrera begira espero denari buruz, eta horrek kezka arrazoi izan beharko luke gobernuarentzat.



Xabier Letona
@xleona

GALDERAK

1. **Nola baloratzen duzue Nafarroako Gobernuak 16 hilabetetan zuen esparruan egin duen lana? Jarri nota 0tik 10era.**
2. **Zuen esparruan nora heldu beharko litzateke gobernuak gelditzen zaion legealdi denboran?**

BILGUNE FEMINISTA

Nota: 5. Balorazioa. 2016ko Nafarroako aurrekontuen legea epelegia izan zen, UPNren gobernuaren norabidearen jarraipena kezkaz begiratu genuen. Aurreko asteetan datorren sei urteetarako indarkeria matxistaren aurkako plana aurkeztu zuen Foru Gobernuak eta 22,5 milioi euro bideratuko zirela adierazi. Badirudi hainbat hutsune betetzera datorrela plana, baina goiz da balorazioak egiteko.

Abortatzeko eskubidea: onartu berri den 103/2016 Foru Dekretuak aurrera pauso handiak eta sakonak ekarriko ditu martxan jartzen denean. Dekretuak baditu itzal eta zirrikituak, kasu honetan egun dugun klinika kontzertatura kasuak bideratzea adibidez. Osasunbidearen sustrai atzerakoiak, sakonak eta sendoak dira. Beraz dekretua aurrera eraman ahal izateko Nafarroako Gobernuaren borondate irmoa beharko da.

roako Gobernuaren borondate irmoa beharko da.

Aurrera begira. Aldaketa gehiago, sozialagoa eta feministagoa behar dugu. Oraindik eskuinaren erregimen patriarkala ordezkatzan duten botere gunee-tan aldaketak beharko dira. Horretarako, Mugimendu Feminista mintzakide politikotzat hartzea ezinbesteko izanen da, eta hau ez da oraindik gertatu.

103/2016 Foru Dekretua modu txukunean garatu eta txertatu behar da, lan merkatuan kontratazioak berdintasun irizpideekin arautu, hezkuntza eta prebentzioan gehiago inbertitu, indarkeria matxistaren aurkako plan integrala garatu eta baliabidez hornitu; eta kultur arloan, osasunean zein bestelako eskubide sozialen arloan, edota ekonomiaren garapenerako neurrietan emakumeen errealitate eta behar bereziak kontuan hartuko dituzten politikak ezartzea dira gure bide orrian.



NAVARRA.ES

PAH IRUÑEA - ETXEBIZITZA

Nota: 5. Balorazioa. Nafarroako Gobernu berriak oso egoera gogorra topatu zuen. Gobernu honentzat arlo soziala garrantzitsua dela pentsatu nahi dugu askok, baina geldo doaz. Adibide bat: Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideen Legea hobekuntza bat da, baina ez nahi genuen bestekoa. Bakarrik bizi diren pertsonen errenta 655 eurotik 600era gutxitu dute eta behar dira bi urte Nafarroan bizitzen kobratzen hasteko.

Aurrera begira. Alokairurako dagoen etxe kopurua erabat txikia da eta beldur gara, hartzen ari diren neurriak oso epe luzera begira izan daitezkeela. Familia asko bizi dira gela bakar batean, denek sufritzen dute egoera hori, baina bereziki haurrek... Ama atera behar da lanera, esaterako, eta umeak bakarrik utzi behar ditu gelan arrisku egoerak sortuz...

Beraz, alokairuko etxe kopuru handiagoa behar da eta horretarako gobernuak negoziatu behar du bankuekin, haiek dituzten etxeak etxe-funts horretarako jar ditzaten. Aldi berean, etxe asko hutsik daude eta gobernuak bultzatu beharko lituzke horien jabeak alokairuan jar ditzaten, seguruen bidez bermatuz etxeak egoera onean itzuliko zaizkiela.

2015eko udan Nafarroako Gobernua aurkeztu zenekoa argazki handian eta txikian gobernua sostengatzen duten lau alderdietako ordezkariak gobernu akordioa eskuetan dutela.



SORTZEN ELKARTEA - HEZKUNTZA

Balorazioa. UPNko Iribasen garai ilun eta gogorretatik etorrira, aldaketa haize freskoa izan zen guretzat. Administrazioetik euskararen kontrako kanpaina instituzionalak berririo ez pairatzearen zama gaineratik kendu genuen. Hala ere, gobernu akordioan euskararen ofizialtasuna lurralde osorako ez jasotzea ulertezina izan zen. Hilabete hauetan "LOMCE nafar erara" pikutara bidaltzeko ahalegindu ez izana ere kezka bizi dugu.

Aurrera begira. Hezkuntza Departamentuari elkarlanerako deia egiten diogu. Gure lehentasunak honakoak dira: euskarazko hezkuntzaren garapena, LOMCeri ez, eskola inklusibo eta partehartzaile baten aldeko baliabideak handitu, eskola txikien aldeko politi-

kak... Inoiz ezin gara ase sentitu, asko baitago egiteko, eta hor kokatzen dugu gure eginbeharra, gizarte mugimendu gisa, etengabeko aldarrikapenean eta hobekuntzak eskatzen.

Ez diegu nota jarriko, bestelako ebaluazio eredu baten aldekoak baikara! Bi gaitasun gehiago lantzeko eskatuko diogu: bat, bere buruan gehiago sinestea, euskaldunak bigarren mailako biztanleak ez izateaz gain, euskarazko eredu Nafarroak duen aberastasun handienetakoa baita. Bi, ondokoekin elkarlanean gehiagotan aritzea, bestelako hezkuntza sistema bat posible da eta.

STEILAS SINDIKATUA

Balorazioa. Gauza batzuk hobetu dira: Haur eta Lehen Hezkuntzan irakasle-ikasle ratioak jaitea, legezkoak izatea

ikasliburuetako Euskal Herriko mapak, irakasle kontratatuek familia laguntza kobratzea... Beraz, oso gutxi oraindik.

Aurrera begira. Oro har, jarraitzen dugu UPNk diseinatutako politikekin, eta ez da hasi negoziatziorik hezkuntzako eragileekin. Hortaz, aldaketa erabatekoa izan beharko litzateke. Euskararen apartheidarekin bukatu: oposizio eta kontratazio zerrenda bakarra, euskara hedatu Lanbide Heziketan, ikasketa artistikoetan eta Unibertsitatean. Sare guztia hartuta, Lehen Hezkuntzatik aurrera ikasleen % 61ek baino gehiagok ez du euskara edo euskaraz batere ikasten; beraz, Nafarroako ikasle guztientzat ziurtatu beharko litzateke euskararen gutxieneko ezagutza. PAI alde batera utzi, eta ganorazko Hizkuntzen Trataera Bateratua ezarri beharko litzateke.

Parekatu beharko lirateke funtzionarioen eta kontratatuen arteko soldatak eta langile guztiek udako lansaria kobratu beharko lukete. Irakas-orduak eta ratioak jaitsiko balira, hezkuntzaren kalitatea handituko litzateke eta ehunka irakasle kontratatuko lirateke. Baliabidez hornituriko berdintasun, hezkidetzatza eta heziketa sexu-afektibo planak zabaldu beharko lirateke ikastetxe guztietan. Nota: Ez dira erdira ailegatu; ea legealdi bukaerarako gainditzten duten.

ELA SINDIKATUA

Nota: 5(-). **Balorazioa.** Aldaketa neurterakoan lau ardatz aztertu behar dira: demokratizazioa, arlo soziala, pribilegio eta klientelismoaren desmantelazioa eta lan baldintzak. Demokratizazioan eman dira pausoak: oroimen historikoa, biktimak, euskararen trataera, sektarizazioa... Baina esparru sozialean dira gobernu honen gabezia nabarmenenak. Fiskaltasunean aldaketak anekdotikoak egin dira. "Hau da dagoena!", diote politikari batzuek, eta hori onartezina da ezkerreko logikatik.

Pribilegio eta klientelismoaren aurkako politiketan hartu dira erabaki batzuk, baina ausardia falta da. Opusek oraindik dituen abantailak ez dira inondik onargarriak, eta zeharka edo zuzenean, UGT, CCOO eta CEN finantzatzen jarraitzen da. Hau horrela den heinean ezin dugu esan sindikatu guztiek aukera berdina ditugula.

Aurrera begira. Fiskaltasunaren aldaketa ezinbestekoa da. 1.800 milioi

euroko aldea dugu EBko batez besteko presio fiskalarekin. Ondoren, hasi daiteke beste gauzez hitz egiten: zerbitzu publikoetan eman diren murrizketak iraultzeaz, eskubide sozialez; 0-3 urteko hezkuntzara pasatzeaz; osasungintzan itxaron zerrendekin bukatzeaz edo menpekotasun egoeran daudenei zaintza publikoa bermatzeaz.

Langileon formakuntzari buruz, ez dago aitzakiarik eredu publiko batean ez aritzeko, ezta gobernuak zuzenean edo azpikontratatuta dauzkan milaka langileen lan baldintzak ez hobetzeko ere. Nota: 5era ez da iristen, beraz, aldaketa egiteko dago. UPNren basakeriak zuzentzea edo leuntzea ez da nahikoa benetako aldaketari buruz hitz egiteko.

EHNE SINDIKATUA - NEKAZARITZA

Nota: 6-7. **Balorazioa.** Egindako lanarekin baino markatutako lan ildoak da gehien goraiaputzen duguna, badakigulako egun batetik bestera ezin dela dena aldatu. Baina pausoak somatzen hasiak dira, adibidez aurtengo aurrerakuntzak inflexio puntu horren adierazle izan daitezke, edota egiten ari diren barne berrantolaketa, edota parte hartzea bultzatzeko zabalduetako bideak. Dena den, ausardiaz jokatu beharko dute inflexio puntu batetik dinamika eraldatzaile baterantz egiteko.

Aurrera begira. Lau urte ez da denbora sobera nekazaritzak eta abeltzaintzak behar duten eraldaketa osoa egiteko, baino hainbat eremutan Gobernuak lanak norabide onean utzi ditzake. Hala nola elikadura burujabetzaren sakontzean, eredu industrial eta ingurugirora errotutako ereduaren arteko ezatabidaren sozializazioan, kanpotik datozkigun eta lurra eta elikagaiak kutsatzen dituzten intsumoen erabilpenen murrizketan eta eredu agroekologikoen hazkundean ere bai.

MEMORIAREN AUTOBUSA - OROIMEN HISTORIKOA

Nota: 6,5. **Balorazioa.** Jarrera aldaketa nabaria da: lehen gobernuak oztopatzen zuen lan memorialista, eta orain aldeko jarrera du. Adibideak: elkarrekin harremana areagotzea, jarduera memoria-listendako diru-laguntzak, gobernuaren parte hartzea hainbat ekitalditan, gorpuak lurpetik ateratzea edota ikur fran-

kistak kentzen hasteko neurriak. Horrekin batera, frankismoaren aurkako kereila judiziala jartzeko Iruñeko Udalak eta Parlamentuak hartutako erabakiak.

Edozein modutan, hainbat kontutagure desadostasuna ere agerikoa da: batzuetan harremana ez da beharko lukeen zuzena izan, memoria legea aplikatzeko erritmoa mantsoegi izaten ari da, eta ikur frankisten erroldan gabezia garrantzitsuak daude. Gainera, gai hauekin Eliza eta Opus Dei ez mintzeko asmoa dago. Laburbilduz, gehiago espero genuen.

Aurrera begira. Hauexek dira garatu gabeko neurriak: Memoria Tokien errolda egitea eta toki horiek babestea, amnistia legea bertan behera uztea bultzatzea, Memoria Institutua sortzea, Egiaren Batzordea bultzatzea, gerra eta frankismoaren errepresioari buruzko unitate didaktikoak sortzea, eta sinbologia frankista modu integralean ezabatzea.

EUSKARAREN KONTSEILUA

Balorazioa. UPNren Gobernuak egindako euskararen kontrako hizkuntza-politikek oso abiapuntu eskasa utzi zuten, administrazioari dagozkion hiru zutabetan -corpus juridikoa, plangintzak eta baliabideak- egoera idorra zen benetan eta hori euri tantaz bustitzen hasi da, baina oraindik ibaia egiteko asko falta da. Corpus juridikoari dagokionez, *de facto* har zitezkeen neurriak ez ditu hartu, adibidez 29/2003 Dekretua aldatzea. Plan estrategikoa egiten hasi da eta hori positibo baloratzen dugu. Baliabideen kasuan ere pauso bat eman da aurrera, baina oraindik beharrak ezal-tzetik urruti gaude.

Aurrera begira. Corpus juridikoan, helburua hainbeste min egiten duen Vas-cuencearen Legea aldatzea da, baina prozesu hori pixkanaka egin behar dela ulertzen dugu. Hortaz, euskarari kalte egiten dioten dekretuak aldatuta beharko lukete legegintzaldia amaitzerako eta gobernuak behar diren baliabideak jarri behar ditu (pertsonalak, ekonomikoak...). Gobernuak eskutik du hori egiteko aukera eta duen denbora baliatu egin behar du, euskararen esparruan ere aldaketaren gobernu izan dadin. Nota: ebaluazio jarraitua egiten diogu. Beharrezko neurriak hartzen dituen, euskalgintzarekin elkarlanerako boron-

datea duen (plan estrategikoan bezala) eta gisakoak dira baloratzekoak legealdia amaituta.

KATTALINGORRI - LGTBI

Nota: 8. Balorazioa. Argi dago gobernuak LGTBI kolektiboarekin izan duen jarrera gertukoa izan dela. Historikoak diren aldarrikapenak azaldu dizkiegu eta orain arte egin ditugun prozesu politikoak kontuan hartu dituzte; baina garrantzitsuen zera da, zer nahi dugun adierazteko aukera eman digutela. Orain arte sexu aniztasunaren bisibilizazioa kolektiboki egin behar izan dugu eta administrazioaren papera tolerantzia pasiboa izan da. Orain LGTB politikak aktibatzeke lehenengo mekanismoak sortu dira.

Aurrera begira. Alde batetik, gure asmoa gobernuarekin izaten ari garen interlokuzioa indartzea eta kanal berriak sortzea da eta, bestetik, autonomia izango den eta eroso sentitu ahalko garen esparru bat administrazioan izatea. Bestela esanda, LGTB eremu, esparru eta arlo espezifikoak sortzea.

Era berean, transexualitateak dakartzan konplexutasunei heldu behar zaie eta Trans kolektiboak dituen ezagutza eta jakinduria aurrez aurre azaldu behar dira, hau da: klinika eta biografiek jarraera ulerkorrago bati heldu beharko diote lazkeria leundu ahal izateko. Kasu batzuetan transexualitate prozesuari heletzeke egiten diren diagnostiko klinikoek ondorengo dakarte. Trans kolektiboek hitza eman behar zaie malgutasunari eta despatologizazioari heletzeke. Gobernuak LGTBI esparrua eta politikak finkatu behar ditu, esan den moduan mekanismoak aktibatu behar dira planteatu ditugun estrategiak sustatzeko.

KONTUZI! - USTELKERIA

Nota: 6. Balorazioa. Aldaketak denbora behar duela ulertzen dugu, baina badoa gauzatuz. Orain arte instituzioak hamarkada asko aritu dira lanean iluntasunean eta kontrol ideologikoan oinarrituta. Ekarpene interesgarriak ikusten ditugu, esaterako abian jartzen ari den kontrolerako instituzio berria; bereziki, herritarrei kontu emateko borondatea ikusten dugu, baita ere gobernu lanean ari den esparru guztietara gardentasuna eramateko borondatea.



EKINKLIK

Aurrera begira. Aipatutako kontrol organoa sendotzeko baliatu beharko litzateke, behar adinako baliabide ekonomiko eta humanoek hornituz, aurrera begira lorpen sozial hauek atzeraezinez eginez. Ate birakariei buruzko legedia finkatzea aurrerapen handia litzateke. Gustura ikusiko genuke, halaber, ausardia handiagoa oraindik ere boteretsuak diren botere esparruen aurrean, zeintzuk amarruekin eta obra faraonikoekin krisira eraman gintuzten haien eskutik dauden oraindik ere. Beren karguetan "arrastoa utzi" duten horiek, edo oraindik joan ez diren edo ate birakarien bidez joan diren horiek publikora ekartzea ere begi onez ikusiko genuke, eta areago erantzukizunak eskatuta.

NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

Balorazioa. Denetarik dago. Gauza ondo eginak eta hain ondo egin ez direnak. Positiboa da azpimarratzea eskaini duten harreman hurbila, hala nola prozesuak irekiak eta parte hartzaileak izateko erakutsi duten interesa. II. Gazteriaren Foru Planaren garapena jorratu da, ikuspegi irekiago batetik, gazteriaren egungo eskariak azaltzeko ahalegina eginez. Baina gauza guztietan bi aurpegi daude, eta hain zuzen horregatik, eginiko guztia Planaren prozesu hau izan da eta gazteriak behar dituen beste gauza batzuk alde batera utzi dira, esa-

Etzegabetze baten aurkako protesta Iruñeko Txantrea auzoan; Iruñeko alkate Joseba Asiron ere bertan dela ikusten da.

terako laneko behin-behinekotasunaren kontrako edo emantzipazioaren aldeko lana. Gainera, gauza bat da prozesuak parte hartzaileak izateko nahia azaltzea eta beste bat hori hala izatea, oraindik urrun gaude hori lortzetik.

Aurrera begira. Gazteriarentzat lana zeharkako zerbait izatea lortzeraino egin behar du, horrela esparru guztietan pertsona gazteen eskubideak defendatzeko aukera izateko helburuarekin. Ez jorratzea soilik aisialdia eta kultura pixka bat. Egoera ekonomikoa gehien jasaten dugun kolektiboetako bat garen, irtenbide integral bat eman behar zaigu. Nota dela eta, hau eskolan bezala da, notak amaieran jartzen dira. Denborak esango du.

SUSTRAI ERAKUNTZA - INGURUMENA

Nota: 2-3. Balorazioa. Harreman maila hobea dago gobernuarekin –bilerak eskatu...–, baina horrek ez du gardentasun handiagoa ekarri. Esaterako, Energia Plana –gizarte jasangarriagorako oinarri dena– herritarrei ia ezagutzera eman

gabe ari da eztabaidatzen. Hedabideetan iragarri gabeko bilera batzuk besterik ez dira egin eta eztabaida urtearen amaierarako amaitu nahi dute; beraz, lau hilabete eskas izan ditugu eztabaidarako.

Aurrera begira. Ingurumenean eragin handia duten Nafarroako ekonomiaren alor garrantzitsuak aldatu behar dira. Hemen batzuk: beharrezkoa da Prestakuntza Handiko Trenaren (AHT) proiektuari uko egitea; Castejóngo zentral termikoak ixtea, auzitegiek agindu duten bezala; ez jarraitzea goi-tentsioko linea proiektuekin... Baina gobernu honetan ez dugu ikusten borondaterik horretarako.

COMPañÍA DE LAS TRES ERRES - HONDAKINAK

Nota: 5. Balorazioa. Ez da nahikoa egin ari. Aurreko egoera hobetzea erraza da, Francoren diktaduratik ateratzea bezala da, baina gertatzen ari zaigu gauza bera urte batzuk beranduago: funtzionarioak eta egiturak ez dira aldatzen. Prebendak ere ez. Eredu soziala

ez da aldatzen. Oreaki eutsi beharrendondorioz, gobernuaren sostengatzenduen laukotea ahula da, karguak izan ditzake baina boterea ez. Aldaketaren ilusioa, ezer alda ez dadin. Sistemari eragingo ez dion hartan amore emango dute (abortoa, euskara...), baina ez dute onartuko aldaketarik desarrollismoan, ekonomian, lanaren banaketan, hedabideen kontrolean, kudeaketa pribatuan, funtzio publikoan, multinazionalen sarrreran... Datozen hauteskundeei begira ezer onik iragartzen ez duen etsipena. Berdinen eskuetan jarraitzen dugu.


Aurrera begira. Nahikoa litzateke ingurumeneko egungo legediaren %50a beteko balitz, baina ez dezagun ahaztu legedi hori sistema liberal batean garatu dela eta ez dela nahikoa. Zibilizazio krisia bizi dugu eta honek eskatzen du legedia desarrollista geldiaraztea. Zauri horren sakona ez da tiritekin konpontzen. Egungo legediak adabakiak jarri nahi ditu nola-hala aurrera egiteko, baina hori ere ez da lortzen. Hondakinakiko konponbidea kontsumoan da. Beherakoa ez da konpontzen pixontzi handi batekin.

URA FUNDAZIOA

Nota: 6. Balorazioa. Positiboa da. Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasearekin zezenari adarretatik heldu dio, dagozkion azterketak egiten ari da eta hauen ondoren erabakiko du zer egin. Orain artekoa ikusita hori asko da. Lehenengo Fasean, ordea, ez du halako azterketarik egin eta horiek gabe ureztatze eremu berriak zabaltu dira; hori kritikagarria da.

Aurrera begira. Egin beharrekoen artean: Esako Urtegiko gaiarekin posizionamendu argi bat finkatzea herritarren segurtasuna bermatze aldera. Urtegi hori ez da bere eskumenekoa -Espainiako Gobernuarena da-, baina eragiten dio nafar askoren segurtasunari ere. Nafarroako Ubideari dagokionez, ez gaude ados Kontuen Ganberak Lehen Faseaz egin zuen balorazioarekin eta gobernuak berea egin beharko lukeela uste dugu.

"Salba dezagun Ega" kanpaina ere hor dago. Jurramendiko Mankomunitatea Ega ibaiaren akuiferoen gehiegizko usiaketa egiten ari da eta honek asko kaltetu du ibaiaren egoera. Neurriak hartu behar dira hori konpontzeko. ■



Ertzaintzaren app berria
Zure segurtasuna, hurbilago.

PERTSONA HELBURU
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Deskargatu oraintxe

Available on the App Store

Get it on BlackBerry World

*Zatoz, parte har ezazu
Basherri taldeen
mugimenduan!*



Basherri
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK *sarea*

www.basherrisarea.eus

Hozkailua betetzeko bi ate

Kontsumo talde bateko kide batek eta elikagaiak dendetan erosten dituen lagun batek euren errealitatea eta ohiturak zein diren kontatu digute. Biak dira bertako produktu ekologikoak bultzatu eta kontsumitzearen aldekoak, baina bi bideetatik bete al liteke hozkailua halako elikagaiez? Hilabetez euren erosketak taula batean idatzi dituzte, eta ateratako ondorioak partekatu dituzte ARGIArekin.



Irati Sarasua Arabaolaza

@iratisarasua

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Leo Argotek eta Arrate Beobidek –hori ez da bere benetako izena– beren kontsumo ohiturei buruzko sekretuak kontatuko dizkigute. Lehenak 33 urte ditu eta Errenteria-Oreretakoa da, eta bigarrenak 26 ditu eta hernaniarra da. Bakarrik bizi dira biak. Ordu bertsuan esnatzen dira. Biek kafearekiko duten bizioa onartu digute. Eta biak dira bertako produktu ekologikoak jatearen aldekoak. Baina Argotek kontsumo talde baten bitartez betetzen du hozkailua, eta Beobidek, aldiz, elikagaiak dendetan erosita.

Lekaleek, barazkiek, haragiak eta arrainak osatzen dute bien asteko menua. Ohitura bertsuak dituztela esan genezake eta biak saiatzen dira erosketak kontzienteak egiten. Saiatu bai, baina lortzen al dute? Besteak beste, galdera horri erantzuna bilatu nahian, elkarrizketa egin aurretik lanean jarri ditugu: hilabetez euren elikadura eta hondakinak taula batean idatzi dituzte, eta atzera begiratu eta eginikoa ikusi ostean, ondorioztatutakoa ARGIArekin kontatu diote.

Biak harrituta geratu dira hondakin organikoarekin, harro kontatu digute kopuru txikia sortzen dutela, espe-ro baino txikiagoa. “Ez dakit heziketatik den edo, baina soberan dagoena

hurrengo egunean erabiltzen dudala ohartu naiz, inkontzienteki egin dut, horrekin harrituta geratu naiz”, kontatu digu irribarretsu Beobidek. Argotek ere ideia bera nabarmendu du: “Konposta egiten dut, eta orain arte ez naiz jabetu sortutako kopuruaz, oso gutxi ateratzen dut, oso gutxi botatzen dut”.

Erosketetan presak agintzen duenean

Hernaniarrak, normalean herriko den-da txikietan erosketak egin arren eta zer kontsumitu nahi duen jakin arren, lane-ko ordutegien eraginez, korrika eta presaka erosi behar izaten du batzuetan, nahiko berandu eta ahal dena. Horrek egin nahi duenaren eta egin dezakeenaren artean muga bat ezartzen dio. “Egun horietan ez dut denbora asko pasatzen zer erosi nahi dudana eta erosi nahi dudana hori nondik datorren pentsatzen, beste alde batera begiratzea besterik ez dut halakoetan”.

Supermerkatura sartzea beste aukerarik ez duen egunak egoten direla onartu digu. Nahiak eta errealitateak batzuetan ez dute bat egiten bere kasuan. Egunean egunekoa erosten du eta horrek hainbatetan mugatu egiten du erosketak. Argotek, berriz, kontsumo

taldearen bitartez lortzen ditu elikagai gehienak, eta saskia hartzen duen ba-koitzean bi asterako betetzen du hozkailua. Hori izan liteke biak ezberdintzen dituen ezaugarri nagusia.

Berak lagun batekin partekatzen du saskia. Nabarmendu du berarentzat kontsumo taldearen bitartez produktuak erostea erosoena dela, baina bada-kiela ez dela edonorentzako eredua. “Ni bakarrik bizi naiz eta egunero lanean bertako menua jaten dut. Lau senide-ko familia baten egoera ezberdina da eta egia da ondo antolatu behar duzula egunerokotasuna, lehenik zer jan behar duzun, zer hondatzen den lehenengo... Gauza asko izan behar dira buruan, bai-na ohitura kontua ere bada”.

Kontsumo taldearen bitartez lortzen ditu Argotek produktu asko, besteak beste, barazkiak, pasta, zerealak eta le-
kaleak, arrautzak, ogia, olioia eta ez-
tia. Oreretan Gipuzkoako ekoizle batzuen esnekiak saltzen dituen makina dago eta bertan erosten ditu berak. Haragia batzuetan kontsumo taldean izaten dute, eta, bestela, bi hilean behin Olaberriako abeltzain bati erosten dio. Arraina eta fruta herriko dendetan erosten ditu. Supermerkaturaren etxerako bestelako pro-





Arrate Beobide eta Leo Argotek bere kontsumo ohiturei buruz gogoeta egin dute.

duktuak soilik erosten ditu, eta noizean behin txokolatea edota azeitunak.

“Bertako produktuak kontsumitu ditzakezu kontsumo talde batean egonik, edota herriko dendetan erosita”, azpimarratu du Beobidek. Berak ahal duen guztietan herriko denda txikietan lortzen ditu elikagaiak, baina nabarmendu du hainbat urrats eman behar dituela oraindik eta baduela zer hobetu: “Besteak beste, arroza, makarroiak edota dilistak erostean, normalean, pisuka erosi ordez zorroetan datorrena erosten dut eta hori saihestu beharko nuke”. Kopuru handiagoa erosita dendetara gutxiago joan eta plastiko gutxiago sortzeko modua aurkituko lukeela uste du.

Baserrian jaioa da, heziketa eta ohitura hori mantentzen ditu, baserritik joan zenetik ere horri eusten saiatu da eta kontzientzia garatzen: “Badakit kontsumo talde batean egoteak beste zeresan bat duela, ekoizlearekin harremana zuzena delako, baina herrian ere topatu ditzaket bitartekaririk gabe produktuak erosteko aukera eta kalitatezko eta ekologikoak diren produktuak”. Supermerkatuko pasilloetako apalak betetzen dituzten elikagaiak plastiko asko dutela esaten da askotan, eta berak ere bat egiten du horrekin.

Argotek duela gutxi irakurri zuen erositakoaren %30 zaborrontzira botatzen dugula, “imajinatu %30 hori eskainiko bagenio kalitatezko produktua erosteari edota ekoizleei merezi dutena ordaintzeari”. Jaten duen guztia ekoizlearen eskutik zuzenean lortzen du eta argi du beretzat bide egoki eta erosoena kontsumo taldearen bitartez dela. Taldea sortu zutenean, ez zuen maila honetara heltzerik espero, hozkailua horrela betetzea utopia zen orduan. Kritikoa ere bada, hala ere, bere jardunarekin: “Produktu batzuekin, esaterako kafea, txokolatea, tea, erabat koherentea izatea oso zaila da. Elikaduran neurri oso handi batean lortu badut ere, beste esparru batzuetan kontziente izatea kosta egiten zait, teknologia berrietan, esaterako”.

Zergatik bertakoa eta ekologikoa?

Oreretararen bikotekideak supermerkatuetan egiten du erosketak eta askotan bere etxean jatean janariak zaporerik ez duela sentitzen du. “Niri sukaldean aritzea asko gustatzen zait, porruaren edota azenarioaren usaina hartzea. Eta aldea nabaritzen dut nire etxean jasotako produktu horien eta bikotekideak

erositakoen artean, ez du zerikusirik. Ez da arrazionaltasuna jada, instintiboa ere badela esango nuke”.

Txiletik ekoiztutako sagar ekologikoak eskuan izan zituenekoa ekarri du gogora kontsumo taldeko kideak. “Nahiago dut bertakoa eta tratatuak jan” pentsatu zuen etiketa ikustean. Orduan erabaki zuen urratsa ematea, eta bertako produktuak kontsumitzeko aukera egon behar zela pentsatuta, Errenteria-Oreretako kontsumo taldearen sorreran buru belarri aritu zen lanean.

Jende gehienak osasunagatik egiten badu ere, bi protagonistek herri gisa indartzeko ezinbestekoa dela pentsatuta egiten dute bertako elikagaien alde. Beobidek dio urrunetik elikagaiak ekartzeari ez dela ona ez gure herriarentzat ezta ekoizten duen herriarentzat ere. “Espainiako Estatuan, 4.500 kilometrotik datoz, batzaz beste, elikagaiak. Hain oinarritzakoa den zerbait hain urrunetik etortzea oso arriskutsua iruditzen zait gizarte gisa”, gaineratu du Argotek.

Nahia, kontzientzia eta hautua

Kontsumo ohiturekin oro har geroz eta kontzientzia handiagoa dutela uste dute biek, eta gizartean polarizazio bat ikusten dute. “Erosotasuna eta prezioa izaten dira gaur egungo ardura nagusiak”, dio Argotek. Gehiengoak denbora gutxi pasatzen du, euren iritziz, sukaldean, eta erosten duenari ez dio gehiegi errepikatzen. “Dena da nahi dugun momentuan, nahi dugun erara, eta berdin du nondik datorren, nola datorren, ekoiztu duen hori nolakoa den... Elikagaien kasuan eta bestela”, gaineratu du Beobidek. Bestalde, jandakoaz arduratzen denik ere badela uste dute, baina gutxiengoak dela.

Beobidek gero eta kontzientzia gehiago duela uste du, baina konturatzen da kontzientzia izan arren, hainbatetan erosketak errazetan erortzen dela, pentsatu gabekoetan.

Biek ideia berean bat egiten dute, modu batera edo bestera bertakoa eta ekologikoa den produktua babestu behar dela. “Bertako ekoizleei behar duten lekua eskaini behar diegu eta merezi dutena ordaindu. Lagunek esaten didate ez dudala mundua aldatuko, erantzuten diet badakidala, baina nik nahi dudana bezala bizi nahi dudala, aukerak izan nahi ditut eginiko hautuekin koherentea izateko”, adierazi du Argotek. ■

Leire Alvarez de Eulate, REAS Euskadi: “EZAGUTZEN DUGUN KAPITALISMOA HILTZERA DOA. ORAIN DUGU ALTERNATIBA ERAIKITZEKO ZIRRIKITUA”

Ekonomia Sozial eta Solidarioa datozen urteetarako pausuak definitzen aritu da Bilbon orain aste batzuk antolatutako Bigarren Kongresuan. REAS Euskadi izan da besteren artean jardunaldien antolatzailea, eta Leire Alvarez de Eulate kidearekin hitz egin dugu REASen orain arteko ibilbideaz, gaur egungo lehentasunez eta hemendik aurrerako urratsez.



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: ARITZ LOIOLA

Leire Alvarez de Eulate (Santurtzi, 1975) REAS Euskadiko Proiektu Arduraduna da 2010etik. Merkatu sozialen garapenean eta sozialki arduratsuak diren kontratazio publikoen prozesuetan laguntzaile aditua da. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresuaren aitzakian jo dugu beragana REAS Euskadi sarea ezagutzeko.

Lagundu pixka bat kokatzen: zer da REAS?

1995ean sortu zuten REAS hogeitaz bat elkarte eta erakundek, bi urtean behin Kordoban antolatzen den eta gaur egun *Idearia* izenez ezagutzen den Ekonomia Solidarioaren bigarren bilkura. 2000. urterako 170 ziren REASen barruan lanean ari diren erakundeak, eta garai horretan definitu ziren Sareen Sare izango den egitura; hau da, REASEk lurralde eta sektore arteko lanak bultzatu eta koordinatzeko funtzioa hartu zuen. 2014an 350etik gora elkartek, taldek eta erakundek osatutako hemezortzi sare zeuden, eta gaur egun 500dik gora dira dagoeneko REASen lanean ari diren erakunde eta enpresak.

REAS Euskadi 1997tik dago martxan, eta gaur egun 74 enpresa eta erakunde sozial dira bultzatzen dutenak ekonomia bat pertsonen eta beren inguruaren zerbitzura egongo dena.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresutik ondorioak ateratzen ari zarete.

Lana osatzen ari gara oraindik, eta urtarilaren erdialdera argitaratuko dugu sarean txostena. Baina laburpen txiki bat egin beharko banizu: Espainia mailan baditugu hainbat eredu lagunduko digutenak ekonomia inklusibo eta demokratikoa eraikitzen, eta horretan pausoak ematen jarraitzea tokatzen zaigu. Kongresuan oso presente izan da ikuspegi feminista; ekonomia feministak egindako ekarpenak barneratuta izango dituen ekonomia solidarioa eraiki behar dugu. Eta horrez gain, ekonomia solidarioaren sare sendo bat osatzeko beharra ere ikusi da, oinarri soziala izango duten egitura kooperatiboak (finantzak, energia, elikadura, komunikazioa...) sortu eta bultzatzeko beharra, eta ekonomia jasangarriago

baterantz egin beharreko trantsizioan indarrak jartzea ere bai.

Ekonomia sozialaren gaia azken urteetan indarra hartzen ari da Euskal Herrian. Baina benetan mugimendu alternatibo kritiko eta kontziente bat sortzen ari da ala koiuntura ekonomikoak eramanda puztu eta “benetako ekonomiak” hobera egitean hustuko den fenomeno da?

Egia da 2007-2008an lehertu zen finantza krisiaren ondotik asko hazi direla sozioekonomiaren inguruko alternatibak. Kasu batzuetan garapen neoliberalarekin kritikoak diren kolektiboek sortutakoak dira, eta beste batzuetan lehendik martxan zeuden baina egoerak horretara eramanda geroz eta jende gehiago atxiki zaien proiektuak dira. Dena dela ere, guk mugimendu bezala aukera eta erronkatzat ikusi behar dugu gaurko egoera, eta lortu behar dugu indartzen ari den energia hori guztia kanalizatu eta alternatiba inklusiboak eraikitzea, guztiontzat lekua egongo den alternatibak. Denetarikoa proiektuak sortzen ari dira: sistema kapitalistarekin batera bizi direnak, zenbait



“Kongresuan oso presente egon da ikuspegi feminista: ekonomia feministak egindako ekarpenak barneratuta izango dituen ekonomia solidarioa eraiki behar dugu”.

Zein dira gaur egun REASen lehentasunak?

Hiru dimentsiotan bereizten dugu mugimendua: batetik dago ekintza ekonomikoa, merkatu sozialean, solidaritatean, kontsumo kritikoa oinarritutako den aktibitate ekonomikoa sortzearen garrantzia; bigarrenik dago ekintza soziopolitikoa, kultura aldaketa bultzatuko duena, beste gizarte mugimenduekin –feminista edo ekologikoa, adibidez– aliantzak eta elkarlana bilatuko dituen; eta hirugarrenik dago ekintza politiko-instituzionala, herritarren beharrak erdigunera eramango dituen politika publikoak martxan jarriko dituen eta garapen lokal alternatibo jasangarriak bultzatuko dituen.

Aditua zara sozialki arduratsuak diren kontratazio publikoen prozesuetan. Nola dago erakundeetan klausula sozialen gaia?

Guk nahi baino mantsoago doa gure administrazioetan klausula sozialak txertatzea. Azken urteotan, baina, aurreapenak egon dira eta zenbait lekutan hasi dira ohartzen kontratazioa ez dela administrazio publikoak zerbitzuak ahalik eta merkeen lortzeko duen tresna, baizik eta botere publikoek kohesio soziala, aberastasunaren banaketa, justizia eta halako balore eta helburuak lortzeko duten tresna juridikoa dela. Borondate politikoa behar da. ■

praktikatan eredu horretatik alde egin baina beste zenbait egoeratan barneratuta dutenak, eta neurri txikiagoan baina indartzen ari diren sistema kapitalistatik ahal bezain beste deskonektatzen diren proiektuak. Trantsizio garaia bizi dugu, eta dibertsitatea garrantzitsua da; horiek izango baitira osatuko den delako eredu post-kapitalista horren mugak markatuko dituztenak.

Ez da batere erraza, ordea, merkaturaren eta kapitalaren logiketatik kanpoko alternatiba sozioekonomikoak

eraikitzea, gaur egun guztia diruaren bueltan dagoenean eta erabakiak kapitalean eta merkatuan izango duen inpaktuari begira hartzen direnean. Baina César Rendueles-ek Bilboko Kongresuan esan zuen moduan, kapitalismoa azken pausoak ematen ari den zonbi bat da, eta azken urrats horiek mingarriak badira ere, garbi dagoena da kapitalismoa ezagutzen dugun modura behintzat hiltzera doala. Eta hor dago gure aukera, alternatiba antolatzeko zirrikitua.



Ana Pontón BNGko bozeramailea:

“GALIZIAN ABERTZALETASUNA HANDIAGOA DA HAUTESKUNDEEK DIOTENA BAINO”

Sarria (Lugo), 1977. 18 urterekin Santiago de Compostelara joan zen zientzia politikoak ikastera, eta ez zen herrira itzuli. Oso gazte hasi zen BNGn militatzen, eta oso gaztea zen, halaber, erakundean ardura karguak bereganatu zituenean. 26 urte dituenetik Galiziako Parlamentuko kidea da, eta otsailean BNGren bozeramaile nazional hautatu zuten. Iraileko hauteskundeetan inkestek aurreikusitako hondamendia saihestu eta gero, Galizian “Pontón efektuaz” hitz egiten hasiak dira jada.



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIA: XOSÉ MEXUTO

Otsailean aukeratu zintuzten BNGko buru, erakundea birfundatzeko helburua duen *Adiante* (Aurrerantz) prozesua mar txan jartzea onartu zen biltzar berean.

BNGk hamarkada bat darama sostengua galtzen, bai hauteskunde emaitzei dagokienez bai sozialki, eta horrek eztabaida sakona eragin du. PSOE-BNG bitariko gobernua amaitu eta PPK gehiengo absolutua berreskuratu ostean [2009an] eztabaida bizia piztu zen galiziar abertzaletasunaren rolari buruz. Eztabaida hark, azkenik, BNG zatitu zuen, eta sektore batek, kide kopurua-rengatik baino batzuen garrantziagatik –esaterako, Xosé Manuel Beiras– esan-guratsuagoa izan zena, En Marea barruan amaitu den bidea hautatu zuen. Bide hori galiziar abertzaletasunaren ohiko jardunetik aldentu zen, indar politiko propioen aldeko apustua egin beharrean estatu osoko mugimendu batean parte hartuz.

***Adiante* prozesua, orduan, BNGk zatiketa horren aurrean izandako erreakzioa da?**
Guk geuk ere uste dugu jendartearen al-

daketa izan dela eta une politiko desberdin batean gaudela, bai estatuan gertatzen ari denagatik bai globalizazioak gure nortasunaren eraikuntzan duen eraginagatik. Gailiziar nortasuna bortizki ari da desitxuratzen. Azken biltzarrean etenaldia egin eta gauza batzuk ez ditugula ondo egin onartu genuen. Gure ikuspegiaren eta gure diskurtsoaren zati bat aldatu behar dugu. Uste dut urte honetan egiten hasi garen aldaketek fruitua eman dutela, azken hauteskunde kanpainak jendearekin berriro bat egiteko balio izan digu.

2001etik hauteskunde bakoitzean aurrekoan baino emaitza okerragoak lortu ditu BNGk, eta oso aurreikuspen txarrekin iritsi zineten Galiziako Parlamenturako azken hauteskundeetara. Azkenean legebiltzarkide bat galdu eta zazpitik seira jaitsi zineten. Arrakastatzat jotzeko moduko emaitza da?

Kontuan izan behar da gure abiapuntua ez zela zazpikoa. Ekainean egindako Espainiako hauteskundearen emaitza estrapolatuta Galiziako Parlamentutik kanpo geunden. Azken biltzar nazionala eztabaidarik gogorrenetakoa En Marea espazioan parte hartzeari buruzkoa izan zen.

Ezetz erabaki zenuten.

Eta uste dut asmatu egin genuela, ez baitut En Marea galiziar abertzaletasunaren eremuko indartzat hartzen, hor dauden pertsona batzuek beren burua hala identifikatu arren. Haren erreferentziak Podemosen eremuan daude, eta estatuaren eremuaren barruan jokatzen du. Gauza batzuetan ados egon gaitzke, baina agerikoa da erreferentziazko marko desberdinak ditugula. Haiek uko egiten diote gure herriaren erabakitzeko eskubideari buruzko eztabaida mahai gainean jartzeari. Abiapuntu horrek elkarrengandik aldentzen gaitu.

Askotan aipatzen da inkesten arabera, historikoki, galiziarren %25ek duela bere burua abertzaletzat. BNGk behin baino ez du erdietsi boto portzentaje hori, 1997an.

Ez dakit nola jakin dezakegun inkesta horiek errealtatearen isla zehatza diren ala ez. Baina argi dago Galizian abertzaletasun sentimendua handiagoa dela hauteskundeetako emaitzek adierazten dutena baino, konstante historikoa da. Gakoetako bat da, nire ustez, abertzale sentitzen diren askok ez dutela bat egiten eremu horretako indar politikokoin, eta ez dutela botorik ematen edo beste



batzuei ematen dietela. Edonola, gure helburua %25 hori gainditu eta abertzaletasuna noizbait gehiengoa izatea da.

Kanpotik ikusita, horra iristea ia ezinezkoa dela dirudi. PPK gehiengo absolutua lortzen du ia hauteskunde oro...

Nork bere errealitatea ulertu behar du. Gauzak hemen ez dira gertatzen besterik gabe galiziarrok kontserbadoreak garelako; asko erabiltzen da topiko hori, eta ez du zerikusirik herri honen errealitatearekin. Espainiako Estatuan borroka sindikal eta mobilizazio sozial gehien duen lekuetakoa da Galizia. Kontzientzia eta parte hartzea altuak dira. Baina dinamika soziopolitiko eta demografiko oso desberdinak daude hemen. Mapari begiratuta konturatzen zara herriarren zaharkitzea eta despopulatzeko handien diren eskualdeetan PP jaun eta jabe dela.

“Galizian benetako ezkerak abertzalea izan behar du ezinbestean, askapen soziala emateko oraindik dugun estatuaren barne-kolonia rola amaitzea lortu behar delako”

PPk oso egitura sendoa du Galizian. Leku askotan, BNGren udal zerrenda batean egoteak kostu handia izan dezake: lana galtzeko arriskua, mehatxuak... Hemen frankismotik jasotako dinamika batzuko

bizirik daude oraindik, eta Galiziaren jokabide politiko eta soziala baldintzatzen dute. Gainera, gure mapa mediati-koa erabat eskuindarra da.

PPren hegemonia, batetik, eta abertzaletasunak ustez duen pisu soziala hauteskundeetan erabat ez islatzea, bestetik, Galizian eskuineko alderdi abertzalerik ez izatearen ondorioak izan daitezke?

Galdera klasikoa da hori: zergatik ez dago Galizian eskuineko abertzaletasunik? Hein batean, herrialdeko klase egituragatik eta historiagatik. Inoiz ez da burgesia galiziarrik izan, egon zena kanpotik ekarria izan zen. Feudalismoaren garaian, bertako noblezia osoa kanpoko nobleek ordezkatu zuten, Galiziakoak deserriratuak izan ziren, edota boterea kendu zitzaizen, baita eliz agintari-iei ere. Boteredunak Gaztelakoak ziren, ez bertokoak. Gero, iraultza industrial gertatu zenean Galiziako zati handi bat prozesu horretatik kanpo geratu zen, eta industrializazio apurra, neurri handi batean, kanpoko enpresa-jabeen eskutik etorri zen, ez zen galiziar elite bati lotuta egon. Espainiako Estatuaren barruan Galiziak barne-kolonia funtzioa izan du beti. Egoera horretan, benetako ezkerak abertzalea izan behar du ezinbestean, askapen soziala emateko rol kolonial hori amaitzea lortu behar delako. Estatuan geuk ditugu soldata baxue-nak, pentsio baxue-nak, ekonomia-egituran funtziorik bazterrekoena...

Adiante prozesuan eztabaidan dauden gauzetako bat da BNGk bere burua independentistatzat definituko duen? Gaur arte inoiz ez du hala egin.

Ez dut uste hori denik arazoa. BNGn pentsatzen dugu indar politiko bat bere herriaren kontzientzia mailari egokitu behar zaiola, eta nazio sentimendua nola sustatu ikusi. Testuinguru honetan, garrantzitsua da Galizia nazioa dela eta autodeterminazioa gauzatzeko eskubidea duela esatea. Behin eskubidea aitortuta, eztabaidatuko dugu hori nola gauzatu. Hor dugu beti Puerto Ricoren adibidea: independentea, baina formal-ki baino ez. Eta ikusten ari gara Europar Batasunean estatu independente askok burujabetzarik ez dutela, horra Grezia. Argi dugu estrategiak ezin direla berdina izan leku guztietan. Euskal abertzaletasunak ere ez du berdin jokatzen EAEn, Nafarroan eta Iparraldean. ■

EUSKARAREN MUNDU ANORMAL HORI

Praktikatu eta bizi jardunaldien 3. edizioan entzun genuen baieztapenik deigarriena izan liteke: “Guk oso argi daukagu euskararen mundura ekarri nahi dugun jendea mundu anormal batera ekarri nahi dugula”. Eduardo Apodaka filosofo eta EHUKo irakasleak bota zien AEK-k deituta azaroaren 11n Bilbora bildu ziren dinamizatzaile eta euskara irakasleei.



Marijo Deogracias Horrillo

@desplazatua

ARGAZKIA: AEK

Apodakarekin batera aritu ziren Gemma Sangines Saiz, psikologoa eta TELP tailerretan aditua; Mikel Urdangarin Montero, irakasle, pedagogo eta eusLiderrak egitasmoaren sustatzailea; Amaia Agirre Pinedo, Coaching Factory enpresa-sortzailea. Izan ere, psikologiaren ikuspegia landu nahi izan zuten *Praktikatu eta bizi* jardunaldien antolatzaileek, “euskaraz hitz egiten eragiteko errezetak bilatze aldera”. Hala, gune erdaldunetan euskaraz egiten hasteko nola jokatu, edo norberaren hizkuntza jokaeren garrantzia azpimarratu, nahi izan dute aurten AEK-tik.

Baina, gauzak zer diren: hizlari bakar batek ere ez zien errezeta zehatzik proposatu hara batutako mintzakide, berbalagun eta euskara dinamizatzaileei. Emozio positiboak transmititzeaz, entrenamenduaz, praktika sozialaz eta motibazioak askatasunez eta askatasunetik lantzeaz aritu ziren. Izan ere, euskararen hiztun berriek aukerak behar dituzte euskaraz jarduteko, hizkuntza elkarrekin lantzeko, eta, ahal dela, gozatuz.

Horregatik azpimarratu zuen Apodakak “hizkuntzak aktibitate zentzudunak” direla. Elkarrekin bizitzeko baliatzen dugu hizkuntza eta hortik datorkio hizkuntzari benetako zentzuna: beharritza. Horregatik da garrantzitsua aintzat hartzea ekintza bakoitza zein

hizkuntzatan gauzatzen dugun: “Zentzurik ez daukaten ekintzetan erabiltzen dugun hizkuntza baztertu egingo dugu eta zentzu osoa daukan hizkuntzari atxikiko gara”. Adibide baterako, “Bilbo erdialdean ez dago zalantzarik zentzu osoko hizkuntza gaztelania dela; aldiz eremu horretan euskaraz egiten badugu, bestelako zentzuak bilatu beharko ditugu, eta bestelako praktikak antolatu. Hau da, euskara ere praktika zentzudunetan pentsatu behar dugu”.

Zergatiak asmatzen

Horregatik ari gara behin eta berriz euskarari gainkarga diskurtsiboa jartzen. Zentzugabeziak behartuta “berariaz landu behar izaten ditugu diskurtsiak; asmatu egin behar dugu zergatik egin behar dugun”, azaldu zuen Apodakak. “Zentzua bilatzen” aritzen gara behin eta berriz. Hein batean, filosofia horretan oinarritzen dira herriz herri antolatzen diren euskaraz mintzatzeko aukerak eta kanpainak: “Egoera bereziak prestatzea, praktika bereziak asmatzea, inguru edo giro berezietan batzea... Topatu eta praktikatu egin behar dugu, tenisa edo *footing*a praktikatzeko den bezala; beraz, denbora bat, une bat, giro berezi bat, jende talde berezi bat, aurkitu behar dugu horretarako”.



Horrek badu bere zentzua, jakina, “hizkuntzak aktibitate sozialak baitira. Ezin dugu ahaztu hizkuntzak gure eguneroko jardunetan ondo txertaturik daudela eta horiekin batera ikasten ditugula; hizkuntza ez baita gure bizitzatik kanpo dagoen ezer, gure bizitzan dago eta gu egiten gaitu”.

Baina euskararekin, eta oro har hizkuntza minorizatuekin, gertatzen dena da ekintza sozialei “zentzua bilatu behar diegula aldioro, egiten duguna ez baita normala”. Hortxe bada, euskara dinamizatzaileen erronka: jendea mundu anormal batera erakartzea, Apodakaren hitzetan, “guk oso argi daukagu euskararen mundura ekarri nahi dugun jendea mundu anormal batera ekarri nahi dugula, mundu anomalo batera”. Horregatik da garrantzitsua gainkarga diskurtsua: “Behin eta berriz egiten duguna azaltzen aritu beharko baikara”.

Baina horrek ez dauka zertan oztopo izan, Apodakaren ustez. Are gehiago, “aukeretatik sortzen dira beharrak” eta, “hasieran simulazioetan ibili beharko badugu ere, erosotasunez eta zentzuz beteriko arazo bako normalitatea simulatu beharko badugu, errepikapenez iritsiko gara lortu nahi dugunera”. Alegia, “entrenamendu sozialek etorriko da naturaltasuna, ikaste kolektibo horren ondorioz”.



Argazkian Miren Artola ilustratzailea hizlarien kontakizuna marrazki bidez eskaintzen. Jardunaldietako hitzaldi guztiak helbide honetan daude: <http://praktikatu-jardunaldia.blogspot.com.es>

Ekintza errepikatuez ere aritu zen Gemma Sangines: “Euskaraz egiten mitoa erortzen baitira eta errefortzurik handiena hitz egiteko aukera izatea da”. Sanginesek ere, Apodakaren ildotik, airtortu zuen “euskaraz egiteko argudioak asmatzen” ari garela, baina bere ustez, “ez da beti beharrezkoa: gustuko duguna ez daukagu zertan azaldu”, adieraziz amaitu zuen bere hitzaldia.

Azken batean, Mikel Urdangarinek adierazi bezala, “aktibazioa lortu behar dugu ekintza lortzeko”, beti ere “helburu

» **EDUARDO APODAKA:**
“Zentzurik ez daukaten ekintzetan erabiltzen dugun hizkuntza baztertu egingo dugu eta zentzu osoa daukan hizkuntzari atxikiko gara”

lorgarrietatik abiatuz”. Horretan aritzen dira eusLider tailerretan. Nerabeei zuzendutako tailerrek bilatzen dutena da “gazteek euren kabuz egitea euskaraz jarduteko aukera”. Eta horretarako ezinbestekoa da, Urdangarinen hitzetan, “lortzeko gai garela sentitzea, ekintza arrisku gutxikoa dela, eta ekintzek emozio positiboak eragingo dituztela”. Hala bada, lorpena espezifikoa, neurgarria, eskuragarria, errealista eta denboran gauzagarria izan behar dela azaldu zuen Amaia Agirre Pinedok. Izan ere, nerabe euskaldunek badakite erdal testuinguruetan “arraroak” direla. Apodakaren ustez, “badakite zerbait arraroa egiten dutela eta ez dute arraro izan nahi. Horregatik hasten dira erdaraz egiten, hasten dira normal egiten, normalitate horrek ematen dizkien baliabide, sari, poz eta gozagarriak nahi dituztelako. Euskaragure singularitasun anomaloa baita”.

Miren Artola ilustratzaileak (Visual thinker & Graphic Facilitator) laburbildu zituen hizlariak euskara dinamizatzaileei esateko zituztenak, berak azaldu bezala, leloa zentrutzat hartuta marraztu baitzuen ekintzaren eta proposamenaren arteko elkarrikteta. Eta haren lekuko izan ziren *Praktikatu eta bizi* jardunaldietan izan ziren 90 lagunak. AEKren praktika jardueren koordinatzaile Edorta Lopez Reyren iritziz, “iazko saioak zehatzagoak izan ziren arren, psikologiaren ikuspegia lantzea nahi izan dugu aurtan, hala eskatu baitzigituen dinamizatzaileek eurek”.

Berbalagun taldeetan astero 6.500 lagunek parte hartzen dute eta “horiek guztiak dinamizatzeko eta praktika sozialetan sakontzeko hausnarketa egiteko aprobeztatu nahi izaten ditugu *Praktikatu eta bizi* jardunaldiok”. ■

ZURE ETXERA ETA BIZKOR!

denda.karrikiri.eus

KARRIKIRI.eus
IRUÑEKO EUSKALDUNON TOPAGUNA

KARRIKIRI euskal denda. Xabier karrika 4. Iruñea

50€-tik gorako eskaerarekin opari hau zure etxean!

BAKETIK GERRARA, ITZULPENA MEDIO



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Etiopia, 1889. Tigray eta Amhara eskualdeak bereganatu ondoren, Menelik II.a Etiopiako enperadore izendatu zuten. Berehala neurri berritzaileak hartu zituen: esklabotza galarazi, derrigorrezko hezkuntza ezarri, burdinbidea eraikitzen hasi... Eta ez zuen ahaztu konkistetan Italiako Erresumaren laguntza izan zuela. Italiarrei Itsaso Gorriko kostaldea eman zien eta, hala, Eritrea izan zen Afrikako lehen kolonia italiarra. Gainera, 1889ko maiatzaren 2an enperadoreak eta Pietro Antonelli kondeak, Umberto I.a erregea ordezkatzuz, adiskidetasun eta merkataritza librekotuna sinatu zuten Wuchale hirian.

Itunaren lehen artikulua arabera, "Italiako erregearen eta Etiopiako erregearen artean bakea eta adiskidetasuna egongo da, baita bien oinordeko, ondorengo eta mendeko guztien artean ere". 17. artikulua, aldiz, honela zioen amharic hizkuntzan idatzitako testuan: "Etiopiako erregeak Italiako erregearen gobernuareabil *dezake* beste botere eta gobernuetiko harremanetan". Baina, italierazko itzulpenean, *dezake* hura *behar du* bihurtu zuten eta horrek praktikan Etiopia italiarren protektoratu izatea zekarren.

Menelik "hutsegitea" salatu zuen, baina Umberto I.ak, entzungor egiteaz gain, tropak mobilizatu zituen Etiopiako mugan. Eta bake itun hark, azkenean, gerra



Etiopiako enperadore Menelik II.a (1844-1913) lehoi ilez egindako koroa buruan eta erriflea eskuetan, herrialdeko buru militarra ere bazela azpimarratzeko.

ekarri zuen. Gatazka 1894an piztu zen eta 1896an amaitu, etiopiarrek Aduako gudua irabazi zutenean. Gerora, Mussoliniren Italia Etiopiaren jabe izango zen 1935etik 1941era, baina 1913an hil zen arte, Menelik II.a Etiopiako tronuan egon zen.

Aldatu zena tronua bera izan zen. Teknologia berrien zale, Menelik jakin

zuenean AEBetan exekuzio modu berri bat, aulki elektrikoa, asmatu zutela, hiru enkargatu zituen. Baina berehala konturatu zen elektrizitaterik ezean tramankuluak ez zuela inor hiltzen eta bererrerabiltzearen alde egin zuen: handik aurrera, aulki elektriko horietako bat erabili zuen tronua gisa. ■



APPLE/EMI

Abbey Road-eko bosgarren *beatle*-a

The Beatles taldearen *Abbey Road* diskoko azalerako Iain Macmillanek egindako argazki ezagunean, John Lennon atzean, pertsona bat ageri da laukoteari begira. Paul Cole turista estatubatuarra zen, eta 1969ko abuztuaren 8ko goiz hartan erabaki zuen ez zuela emaztearekin beste museo bat ikustera joan nahi eta Londresko kaleetan ibiliko zela. Zebra-bide batean

lau gizon ikusi zituen antzara pausotan eta txoro koadrila bat zela pentsatu zuen. Emazteak pianoa jotzen zuen ezkontzetan eta, handik hilabete batzuetara, The Beatlesen abesti bat jotzeko eskatu zioten. Hura ikasteko diskoa erosi zuen, eta museotik ihesi ibili zen senarrak hantxe ikusi zuen bere burua, museo pieza bihurtuko zen argazkian betikotua. ■

AITORTUKO DUZUN BIZIOA

gaztezulo

22€



943 457 250

harpidetza@gaztezulo.eus

Estropezuka



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Estropezu egin dut mizpiretan. *Mespilus germanica* mizpiraren peskizan nabilela, batekin eta bestearekin hitz egiten, pantailetan ez dauden hitzak irakurtzen, jo eta estropezu ez dut ba egin! "Otsalizar eta mizpira minkatzak, agotzak on-tzen ditu" esaera etorri zait muturraren aurrera. Eta burua ketan. Zenbat hede tira egiteko. Hasteko, otsalizarra (*Sorbus aucuparia*) eta mizpira batera. Biak gure elikaduraren ipularrera baztertuta ditugun fruituak. Makina bat aho gozatu-tuko zuten milaka urtean. Minkatza izan eta ahoa gozatu?, nola liteke? Mikatza da, bai, nireztat ere gozagarriena. Baina esaeran minkatzak beste zerbaite adierazi nahi duela iruditzen zait; minkatza: gustagarri ez dena, mina, zakarra... Egunerokorako nahitaezkoak ziren sagarra –*Malus x domestica*, edari ia bakarra ziren pitarra eta sagardoa egiteko—eta antzekoen aldean, eta lantzearen eta auke-raztearen eta zaintzearen ondorioz gero eta handiago ziren fruituen aldean –udare (*Pyrus communis*), mertxika (*Prunus persica*), gerezia (*Prunus avium* edo *P. cerasus*)— behar-beharrezkoak ez eta ttiki "itsusiak" ziren fruitu horiek, hutsaren hurrengoa. Minkatza. Frantsesek ere hala erabiltzen dute: "Mizpirak" esaten



Otsalizarra (*Sorbus aucuparia*).

KRZYSZTOF P. JASIUTOWICZ-CC BY SA

badizute zakurraren ipurdia edo zakurraren putza adierazten dizute. Bestetik, arbola horiek adarrak sastrakatsuak, nahas-mahas mordoilotsuan dituzte, ez etxekotutako beste fruitu arbola horien adar samur eta bigunak. Minkatza. Eta agotza, zer da agotza? Nik hiru agotz ikusten ditut esaera horretan: arotza, aihotza eta ahotza. Arotzak bi arbola horien zura gogor eta basatia leundu dezake. Ondu. Aihotzak bere adarje sastrakatsua soildu eta menderatu dezake. Ondu. Ahotzak, aldiz, bere gainean fruitu gordin, gogor eta heldugabea umatu

egingo du. Ondu. Ni azken horren aldekoa, otsalizarraren eta mizpirondoaren fruitu mikatzak ahotz gainean zabalduta ontzen dira. Ahotza laboreen lorearen lasto fin-fina da. Ahotzetan jartzea belar ondutan zabaltzea bezala da.

Estropezu egin dut mizpirarekin Durangoko Azokan ere. Bi emakumek mizpiraz galde egin didate: noiz bildu, nola jaso... Eta Elorrioko Arauneta auzoko Osintxueta baserriko Jesus Beitia hitzak erakustera etorri zitzaidan. Tartean zen "xemeikoa", txakur txiki bat ere balio ez duena, hutsaren hurrengoa. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Ezpelaz egindako hesi luze bat dugu etxean eta azken hilabeteetan gaixorik dago. Inguruko landare-denda batean esan ziguten gaitz hori oso zabalduta dagoela eta *Belthirul* izeneko hauts batzuk saldu zizkiguten. Hiru aldiz eman diogu azken hiru hilabeteetan, baina berdintsu jarraitzen du. Zerbait gehiago egin daiteke? Eskerririk asko. Felipe Aramendi (Hernani)

Kaixo Felipe. Ezpelean daukazuen hori tximeleta bat da: *Cydalima perspectalis*. Ikaragarritzko izurrite txarra da, Asia aldetik guregana iritsia. Har berde-beltza da kalte egiten duena. Gero krisalidan, armiarma-sare tankerako batean itxi eta tximeleta bihurtzen da. *Bacillus thuringiensis kurstaki* da bera tratatzeko botika. Hau da, zeuk aipatu duzun *Belthirul*. Tratamendu ekologikoa da, ez die inolako kalterik sortzen ez landareei, ez lurrari ezta guri ere. Tratatu ahal duzun azkarren, 8-10 eguneroko. Landarea ondo busti, saiatu alde guztietatik bustitzen.

Hurrengo urtean udaberritik adi egon eta lehen harra ikusi orduko tratatzen hasi. Hasieratik eginez gero kalteak asko murrizten dira.

JAKOBA ERREKONDO SALTSAMENDI, "ALTZA PORRU"Z:

"Etengabeko festa izan da liburuaren sortze prozesua"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Altza Porrun ikusi zaitugu Jakobian erai-kinkeko jabe, intxaurrondo bihurtzen den superheroi moduan... Ez al zaituzte gehitxo xaxatu marrazkilariek?

Ezetz esango nuke. Nik dagoeneko lagun ditut komikilari horiek, eta badakizu zer pasatzen den lagunekin... Liburu honekin gertatu dena da, edozein gauza gertatu zitekeela! Eta ideia horrekin sortu zen, gainera. Nik estutasun batean jarri nahi nituen marrazkilaria: be-
raiek eraiki behar zituzten gauza asko, ez zitzaion dena egina emango. Estutasun hori oso sortzaile bihurtzen da, eta beraz, edozein gauza espero zitekeen!

Nolabait konpentsatzeko, euskaldunon Mesias ere izendatu zaituzte...

[Barreak] Idoia Torregarai herrikidea dut, elkar oso ongi ezagutzen dugu, eta beno... definizio ganberro bat da, baina egia esan, liburuan oso ongi kabitzen da. Gero beste gauza bat da ados gauden edo ez...

Zaila izan da komikigileak zuzentzea? Askotan deitzen al zizuten baratzearen gaineko dudak argitzeko?

Denetik egon da. Batzuek zalantza gehiago izan dituzte eta laguntza-elkar-lana gehiago bultzatu dute, baina beste batzuek beren kasa hartu dute lana,

bere bidea eginez. Gai mordo daude landu zitezkeenak: landareen mundua orokorrean, baratzeaintza, kultura, hizkuntza, baserriaren mundua, kontsumitzaileen mundua, lurrarekin dugun harremana... Bakoitzak aukeratu zuen non sentitzen zen eroso.

Dibertigarria ere izango zen barazki-marrazki festa, ezta?

Bai, zalantzarik gabe! Oso xelebrea zen bakoitzak nondik jotzen zuen ikustea. Beraiek ez zekiten besteak zer ari ziren egiten, eta ez dute jakin liburuaren etxean jaso duten arte. Horrek ere bazuen bere saltsa! Nik, egia esan, asko gozatu dut liburuaren sortze prozesuan, ez bakarrik produktu bukatuarekin. Sortzea bera etengabeko festa izan da.

Informazio-liburua lehenik, komiki-liburua orain... Zer izango da hurrengoa, poesia liburu bat? Edo agian pantaila handira egin nahiko duzu salto...

Benoa, baratzea mundu askotarako ataria da. Beraz, zergatik ez ba? Literatura eta baratzea, edo artea eta baratzea, edo bertsoak eta baratzea... edo auskalo! Sormenarekin lotutako mundu horientzako guztientzako baratzea eta lurra ideien etengabeko iturria dira. Beraz, edozein gauza etor liteke! ■



Durangoko ARGIA eta Bizi-Baratzearen guneak gehiago izan du plazatik mahaitik baino. "Altza Porru" komiki liburuaren egileak aritu ziren irudi bidez saltsa jartzen eta ikusmina sortu zuten. Eta letxuga eskuan agurtu genuen elkar gunetik pasatakoek. Biba besta!

EUSKAL HERRI OSOKO AGENDA

Abenduak 15: Ormaiztegi

Bizi Baratzea liburuaren aurkezpen hitzaldia. 18:00etan Kultur Etxean.

Abenduak 17: Tolosa

XX. Gabonetako Azoka Berezia. Herrian zehar, era guztietako elikagaiak eta artisau lanak egongo dira salgai eta plaza zaharrean, animaliak ikusgai.

Abenduak 18: Gernika

Euskal Herriko Karakol Txapelketa, 40. edizioa. Karakol dastaketa, erakusketa eta lehiaketa gastronomikoa.

Abenduak 21: San Tomas

Barazkiak, ganadua eta txistorra izaten dira San Tomas azoketan nagusi. Besteak beste, herri hauetan egingo dira, urtero moduan: Donostia, Irun, Mutriku, Azpeitia eta Bilbon. Arrasaten, Santamas jaia 22an ospatuko dute.

Abenduak 22: Gasteiz

Nekazaritza eta abeltzainen produktuen erakusketa, dastaketa eta salmenta egingo dira. Baita hegazti lehiaketa eta erakusketa ere.

Azoken agenda osoa noiznahi ikusteko:

www.bizibaratzea.eus

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus ·

www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso modu errazean.

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

ARGIA 2017 EGUTEGIA

3

Urtea egunez egun gozatzeko

Egunean eguneko orria kentzea bada denboraren joanaz jabetzeko modu bat. Atzokoa atzean utzi eta gaurko eguna beste bat dela pentsatzen ere laguntzen digu. Orri bakoitzak, aurreko aldean dakar egunaren zenbakia, santutegia, izendegia, eguzkia noiz sortu eta sartzen den, itsasgora eta itsasbehera noiz diren eta ilargiaren gora-beheren berri.

2017ko egutegiak, orri bakoitzaren atzeko aldean, egunero adimena lantzeko eduki bat ekarriko digu: buruketak, galderak eta efemerideak, txandakatuta.

Formatu txikia du, 7 zentimetro zabal eta 11,5 zentimetro luze. Mahaian jartzeko edo horman zintzilikatzeko egokia.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARGIA

www.argia.eus/denda
Tel.: 943 371 545

#kazetaritzaindependentea
#euskara
#ekonomiasoziala
#feminismoa
#elikaduraburujabetza

Hilabete honetako sariak

1



Aranzadi Zientzia Elkarteara
bisita gidatua eta bazkaria
Iruñeko erakusketan
2 pertsonarentzako

2



Ipar Euskal Herriko Laborantzaren
egoera eta garapena
4 liburu

3



ARGIA 2017 Egutegia
3 egutegi

4



Euskaltzaleen aktibazioa XXI.
Mendean jardunaldiak
2 sarrera

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Hiru gazte hauek ARGIArekiko euren harremana kontatu ziguten: "New Yorken bizi ginenean 'The New York Times' hartzen genuen, eta internetez jarraitzen genuen argia.eus. Euskal Herrira itzultzean esan genuen: hautatu behar dugu zer informazio sartzen den gure etxera eta zer ordainduko dugun. Eta ARGIAko harpidetza egitea erabaki genuen".

DURANGOKO AZOKA

Zer dio jendeak harpidetza eredu berriaz



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Azokara bisitari moduan joatea suertatu zait aurtengoan. Hantxe zeuden euskal kultura (udazken bueltan behintzat) emankorraren nobedade guztiak, stand bakoitzean berea. Eta bisitari guztiok kontent, poltsak eskumuturretatik zintzilik kultureta paperean sartuta, liburu eta disko artean gure euskal mikro-munduko ezagunik noiz topatuko. Baina bisitari moduan soilik ibili banaiz ere, noski, pasa naiz ARGIAko postutik azoka baino astebete lehenago iragarri zen harpidetza eredu berria zein harreara izaten ari den galdetzeraz.

Erantzunak emozionatu nau. Tira, erantzunak baino, erantzunek; jendeak emandako iritzi batzuk jarri baitzikidate adibide. Lagun asko gerturatu dira esanez "beti nabil ARGIAkoa egitekotan... eta orain bai!", kanpaina berriarekin etorri zaiela berriz ere ARGIA bultzatzeko nahia burura eta gainera planteamenduak konbentzitu egin dituela. Gazte batek harpidetza egiten ari zela esan die proiektua laguntzeko gogoia duela, baina mesedez ez bidaltzeko ezer, berak gurasoen etxean irakurtzen duela eta sarean ere asko jarraitzen duela, "jada nahikoa ematen diguzue!" esanez alde

egin du. Beste zenbait lagunen ahotik irteneko hitza "ausarta" izan da, honela jarraituz: "erotasuna, ez erokeria. Borondate onetik eginda dagoela ikusten da. Espero dut, jendeak eskuzabaltasunez erantzungo duela"; eta kide asko gerturatu dira esatera "ideia mundiala" iruditu zaiela, eta "ARGIAk balio horietara eraman du kazetaritza, eta orain baita proiektu osoa ere, proposamen ekonomikoa barne. Eskerrik asko".

Harpidedun berrien zifra zehatzik ez badugu ere, lagun asko batu dira proiektura. Gainera, lehendik harpidedun diren etako inork ez du orain artekoa baino ekarpen txikiagoa egitea erabaki, eta berri guztiek proiektuari ematen dioten balioaren truke jasoko dutena kalkulatzaren badugu ohartuko gara tarifa zaharrean funtzionatuta baino diru ekarpen handiagoa lortu duela ARGIAk.

ARGIArentzat Durangoko Azoka ez da salmenta puntu hutsa; Durango ARGIAzaleen harreman puntu ere bada, eta bertaratutako komunitate guztiarekin aurrez-aurre egoteko aukera ematen du. Eskerrik asko, beraz, iritzia ematera eta ARGIA proiektuarekin bat egitera gerturatu zareten guztiok. ■



Egutegia inspirazio iturri

Asteasuko 4 urteko lagun honentzat ARGIAren egutegia jolasa da: batzuetan kromo bezala erabiltzen ditu egunak. Denak lurrean zabalik jartzen ditu eta hilabetea osatzen du; galdu dituen zenbakiak, egunak, hutsune batez errespetatzen ditu.



Durango
#ArgiaJendea



Donostiako Leire eta Mendaroko Aitor. Internetetik irakurtzen dute eta #ArgiaJendea pausoa ematera animatu dira :-)



"Aspalditik nuen gogoia eta #ArgiaJendea egin naiz" dio Maiderrek.

Txuma Murugarren:

“ZUZENekoETAN JARRAITU EDO EZ ERABAKITZEKO FASEAN NAGO”

Badira aste batzuk Txuma Murugarrenek ibilbideko zazpigarren diskoa argitaratu duela. Horren aitzakian aritu gatzazkio honetaz eta hartaz galdezka, jakin nahirik zer gertatzen ari den hor, entzule gutxi –baina eskarmentu handikoek– hainbeste estimatzen duten kantautorearen sukaldean.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIAK: ALINA IVAN

Ez da xanpaina bezalakoa, ez da distiratsua, ez zaitu lehen entzunaldian kateatzen. Txuma Murugarrenek *Zerbait ari da gertatzen hor* diskoa argitaratu zuen urriaren hondarrean. Behin grabaketa lanak amaituta, uda osoa igaro zuen kantu berriak entzun gabe, harik eta irratiko elkarrizketa batean jarri zizkionten arte: “Sentsazio ona sortu zidaten. Entzunaldi pausatua eskatzen dute, eta hori eginez gero, entzuleak pixkanaka deskubrituko ditu kantuen zirrikituetan dauden xehetasunak”, dio. Azaroko goiz eguzkitsu batez, dilistak egosi bitartean erantzun ditu galderak. Gaur ere gonbidatuak espero ditu bazkaritarako.

Zertan da aurrekoetatik desberdina *Zerbait gertatzen ari da hor* diskoa?

Beti saiatzen naiz diskotik diskora erregistroz aldatzen, oso desberdin ikusten ditut aurreko diskoak eta kantuak. Gertatzen da oso zaila dela barnean daukatzun ikuspegi horretatik aldentzea, zure betiko ajeak agertzen dira. Kantatzeko moduak ere asko baldintzatzen du, eta ez ahotsarengatik bakarrik: silabak ebasteke modua, melodia baten barruan hitzak nola antolatzen dituzun... kantutaren ikusmoldea izan dezakezu oso desberdina, baina emaitzak beti zugana jotzen du. Dena dela, iruditzen zait dis-

ko hau aurrekoak baino narratiboagoa dela, eta melodia inoiz baino gehiago apartatu dudala. Letretan, oster, nire mamu guztiak agertzen dira. Kantatzekoan bezala, idazterakoan ere erregistro bat gailentzen zaio bakoitzari.

Alferrik deitoratzea kantuak hala dio: “Denborak jipoitzen zaitu uste baino gehiago, biluztu eta umildu, zure egiazko tamainara egokitu”. Disko osoan mantentzen duzu antzeko tonua. Bizitzak zeure tokian jarri zaituela sentitzen duzu?

Zalantzarik gabe. Bizitzak jartzen zaitu zure tokian inolako errukirik gabe, pixkanaka konturatzen zara zure mugak non dauden, eta zure ametsak egokitzen dituzu bizitzak erakusten dizun mugara. Batzuek horri deitzen diote amore ematea, beste batzuek diote tristeza dela, baina hori onartzea oso aberasgarria da. Gainera, ez dago beste biderik. Jakina, onartu daiteke mila modutara: bizitzak zurekin nahi duena egin dezan utziaz, edo, tira, pixka bat aurre eginez, helmuga horiek ez guztiz baztertuz, berrituz eta egokituz baizik. Azken batean, horrela aurkitzen da norberaren “esentzia”, ameskeriak baztertuz, eta mamira joz. Bizitzak txorakeria asko kentzen dizkizu burutik.

Txumak garai batean baino txorakeria gutxiago ditu buruan, beraz.

[Barrez] Nik txorakeriak buruan beti eduki ditut, dauzkat, eta edukiko ditut. Uste dut sendaezina dela hori.

Eta umorea non gelditzen da hemen? Pentsatzekoa da gaztetako ametsak erori zaizkionaren begiradan ironia azalduko dela, norbere buruari barre egiteko joera bat, bizitza lasaiago hartzekoa...

Bai, eta badago hori. *Zerbait gertatzen ari da hor* kantuan, adibidez, nire irudi barregarri bat ematen dut, gauzak oso serio hartu dituen gizagaixo bat ageri da. Horregatik ematen dio izena diskoari, hor agertzen direlako alde ilunak, ezkutatu nahiko zenituzkeen txorakeria guztiak, larunbat gauean egindako ergelkeriak, igande goizean damutzen zaizkizunak.

Behin baino gehiagotan esan izan duzu entzule eskarmentuduna eskatzen dutela zure kantuek. Zer da hori?

Zaila da esaten. Izan daiteke musika kontzienteki entzun duen pertsona bat. Inkontzienteki denok entzuten dugu. Musikaz inguratuta gaude, azken aldian gorrotagarri eta guzti bilakatu zaigu: musikarekin egiten dugu lan, musika entzuten da igogailuetan, musika jartzen dute hipermerkatuetan –eta batzuetan zurea, ikaragarria izaten da hori–. Horregatik aipatzen dut entzule heldua: ez zentzu kronologikoan, baizik eta ariketa kontziente bat egin duelako eta ikasi dituelako gauza batzuk. Entzule helduak, musika bes-telako sentsibilitatez entzuten duenak, errazago estimatuko du nik egindako ahalegina.



Zenbat dira entzule horiek?

Euskal Herriak harrobi handia dauka. Talde eta proposamen oso interesgarriak ateratzen dira, jendeak badauka nozio musikal sakon bat. Ez dut esaten euskal musika oso ondo ezagutzen dutenik, ze hemen badago muga handi bat, azken urteotan areagotu dena: erdal mundua eta euskal mundua bizkarrez bizkar bizi dira. Euskal musikak ez du interesik sortzen erdal munduan, eta horrek kezkatu egiten nau. Baina euskal musika entzuten ez duen jendearen artean ere badira entzule zorrotz askoak.

» “Musikaz inguratuta gaude, gorrotagarri eta guzti bilakatu zaigu: musikarekin egiten dugu lan, musika entzuten da igogailuetan, musika jartzen dute hipermerkatuetan”.

Duela gutxi Facebooken azaldu zenuen kontzertu batean gertatutakoa: zuek jotzen ari zinetela, pareko batzuk isildu gabe hizketan eta oihuka aritu zirela. Oso minduta ematen zenuen.

Batzuetan jasanezina da, zer esanik ez zeure zeurea sentitzen duzun zerbait egitera bazoaz. Rock and rolla egingo banu, ziur asko dantzan arituko ziren. Kontua da nire musika entzun egin behar dela, eta jendearen arreta lortzea zaila dela garaiotan. Jendeak ezin dio zerbaiti arreta jarri hamar minututik gora. Denak izan behar du hiper-motza, eta hiper-arina. Murtxikatuta irenstekoa. Eta batez ere: edukaziorik ez daukagu. Interesatzen ez bazaizu, joan zaitez, eta utzi ni bakean. Kontzertua entzutera joan denak ere ezin du lasai gozatu, hor dagoelako DBHkoak diruditen heldu umetuen koadrila bat. Kontzertua antolatu duena ere gaizki sentitzen da, gauzak antolatzeko gogoia joaten zaio. Kate bat da dena. Halako egoerak askotan gertatzen dira, baina egun hartan bereziki nazkatuta nengoen.

Nola saihestu horrelakoak?

Hasteko, kontzertuetan sarrera jarritz, entzuleen hautaketa egiteko. Bestalde, ezin duzu edonon jo, bilatu behar dira leku goxoagoak, entzulearen arretari hobeto eusten diotenak. Musikari asko dabil gai honekin kezkatuta, beren buruari galdetuz ea merezi ote duen kontzertuak ematea. Ni ere fase horretan nago. Kontzertu onen ostean gustura etxeratzen zara, baina esandakoa, batean kale, bestean bale. Oso nekagarria da, eta azkeneko galdetzen diozu zeure buruari: zuzenekoetatik zer ateratzen dut? Urduri ibiltzea, rollo txarra, sekulako ajea? Orduan, diskoak egingo ditut, moldatuko naiz sarean zabaltzeko, eta kito.

Hala zenioen testu hartan: “Utz dezagun dena Anaia Handiaren eskuetan (...). Guk ez dugu esfortzurik egin behar, eman diezagutela haiek telebista-irratir-egunkari-magazinetatik (...). Hain da nekagarria pentsatzea!”. Anaia Handiaren eragina horrenbestekoa al da?

Zalantzarik gabe. Begira, interneteko lehen urteetan boom bat izan zen blogekin. Denek egiten zuten blog bat, eta sarrera luzeak idazten zituzten, landuak, hitzak eta irudiak nahasirik, bideoen bat ere bai tarteka... eta jendeak irakurri egiten zituen. Orain, 140 karaktere-



Zubiaurrenea, 5 behe · Usurbil

☎ 943 371 042



Etxebeste, 3 · Usurbil

943 361 106

www.facebook.com/marijearropadenda

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Elkano kalea, 5 · Donostia · 943 420 205

ko mikroipuinen lehiaketak egiten dira. Ez dut esaten hori egin behar ez denik, oso datu adierazgarria dela baizik. Dena kontzentratu dugu. Demaseko informazio anabasa honen ondorioz dakigu denetik pixka bat baina ez gara ezertan sakontzeko gai. Panorama pobretzen ari da. Norberak ez badu hartzen bestelako jarrera aktibo bat Twitterren irakurri eta idazteaz gain, nekez aterako du atarramentu onik.

Eta ze toki egiten dio Anaia Handiak Txuma Murugarreni?

Uste dut badaukadala toki bat. EITBko irrati kateetan entzuten da nire musika. Eta garai batean *Goenkaleko* tabernan ere jartzen zuten [barrez]. Badakigu ze irizpideren arabera funtzionatzen duten *Gaztea*-k eta abarrek, baina batzuetan tokatzen zaie euskal musika ere sustatzen dutela frogatzea, eta hor sartzen gara gu. Gu gaude makillaje gelan. AEBetan edo Espainian nik egiten dudanak izan zitzakeen merkatu nitxo hobeak, eta agian izan zitekeen "errentagarria". Euskal Herrian beti egongo da entzungo zaituen frikiren bat, baina beti ibiliko zara prekarietatean.

Euskal literaturan *Tropela* izenez bataiatu zituen Jon Alonsok egun idazle kano-nikotzat jotzen diren horien -Atxaga, Saizarbitoria, Sarrionandia eta abar-ondorengoak, 1954. eta 1972. urteen bitartean jaioak. Askotariko idazleak dira, elkarrekin zerikusi gutxikoak. Gauza bakarrak batzen ditu: ez dute lortu beren aurrekoek adinako aitorpena, dirdira eta hedabideen onarpena. Zilegi al da paralelismoa musikarekin? Hitz egin al daiteke *Ez Dok Amairuren* ondorengo euskal kantautoreen tropelaz?

Bai, hitz egin daiteke. Begira: Joseba Irazokik behin esan zidan gu garela klase ertaineko musikariak. Alegia, tropel hori. Esaten da krisialdi ekonomiko honetan klase ertaina izan dela gehien ahuldu dena. Guk egiten dugunerako badago erreferente nagusi bat: Ruper Ordorika. Eta gure merkatua oso mugatua denez, bizpahiru erreferente hartzen dira, eta gainontzeko guztiak lekurik gabe gelditzen gara.

Musikari ona ez ezik, musikari mediati-koa ere izan beharra dagoelako egun?

Seguru. Baina mediatikoa izateko baliabideak eduki behar dira. Pentsatzen



» *Zerbait gertatzen ari da hor kantuan, nire irudi barregarri bat ematen dut, gauzak oso serio hartu dituen gizagaixo bat ageri da*

» *Autogestioa ere ez da arazo guztiak konponduko dituen formula magikoa*

» *Indonesiako Flores irlako biztanleak txikiagotu egin ziren, zituzten baliabide apurrak hobeto baliatzeko. Gure kultura ere nanizatu egin da. Lehen bost musikari joaten ginen kontzertuetara, orain hiru, eta batzuetan bakarra*

» *Zenbateraino interesatzen zait niri banaketa eta fabrikazioa kontrolatzea? Kantuak sortzeaz gain, diskoa grabatzeaz gain, badut denbora nire diskoaren banaketa eta abarrak egiteko?*

aritu naiz gai honetaz: prekarietateak prekarietatea dakar. Guk, adibidez, zuzenekoak hilean behin ematen baditugu, ezin dugu luzaz entseatzen aritu, ez delako errentagarria gero kobratuko ditugun 300 euro horiek guztion artean banatzea. Eta kontrataziorako dauzkagun baldintza prekario horiek ekartzen dute emaitza prekario bat. Mediatikoa izateko baliabiderik ez baduzu ikusgarritasun txikia lortuko duzu, eta ezin diozu denbora gehiago eskaini daukagun aurreikuspena txikia delako, eta horrek berriz ekarriko du ikusgarritasuna txikia izatea... Dena sorgin gupil bat da. Gainera, zuzenekoetarako taldea behar baduzu, entsegu gelan kantuak zutik jarri behar dituzu aurrea, eta ezin duzu hori egin gaur, eta hurrengo hilabetean beste kontzertu bat dagoenez berriz talde osoa bildu... Ez daukanak ez dauka. Orain, fase horretan nago: zuzenekoekin jarraituko dut ala ez? Egitekotan, nola egingo dut? Formula bat izan daiteke: diskoa ateratzen badut urrian, urritik martxora emango ditut zuzenekoak. Baina lortzen ez baditut hogeita data, ez dut bat ere egingo.

Bururatzen zaizu prekarietatearekin amaitzeko formularik?

Hara, Indonesiako Flores irlaren adibidea jartzen dut askotan. *Homo floresiensis* bezala bataiatu zutenaren hezur batzuk agertu ziren han. Ikaragarri txikia zen, metro eskas neurtzen zuen. Hasiera batean pentsatu zuten nanismoa zeukala. Gero konturatu ziren ezetz, guztiz osasuntsua zela. Kontua da espezie hura txikiagotu egin zela irla hartako baliabide apurrak hobeto baliatzeko. Bada gure kultura ere *nanizatu* egin da, *Homo floresiensis*-a bezala. Lehen bost musikari joaten ginen kontzertuetara, orain hiru besterik ez sarri, eta batzuetan bakarra. Antzerkian, antzera: lehen sekulako atrezzoak eta argi ekipoa eramaten zen, egun bi foku eta kartel bat. Bost aktoreko obretatik, bi aktore izatera. Zer egin genezakeen? Askok diote Eusko Jaurlaritzak diru laguntzaren bat eman beharko lukeela, Frantziakoaren antzeko zerbait: musikariek egiaztatzen badute lan jakin bat egin dutela, jasotzen dute kopuru bat. Ez zait asko gustatzen ideia hori. Uste dut Eusko Jaurlaritzaren edo gobernu baten esku-hartzea nahiko arris-

kutsua izan daitekeela, tentuz egiten ez bada. Askatasuna edo aniztasuna moztu dezake. Agian nire maniak dira, baina ez naiz oso fio boteretik datorrenaz.

Kulturgileek beraiek hasi behar ote dute beren ekonomia propioak sortzen?

Hor dago aukera, diskoa autoekoizti eta zerorrek zabaldu. Egia da hori eginez askatasun gehiago izan dezakezula, zure lanean esku-hartze handiagoa, prozesuaren urrats guztiak kontrolatuz. Baina ez dakit. Zenbateraino interesatzen zait niri banaketa kontrolatzea? Zenbateraino fabrikazioa kontrolatzea? Kantuak sortzeaz gain, diskoa grabatzeaz gain, badut denbora nire diskoaren banaketa eta abarrak egiteko? Oso aldapa gora egiten zait. Jendeak dio: dena zuk zeuk egiten baduzu, gutxienez inbertitutako dirua itzuli egiten zaizu beti. Ados. Baina horretarako egin behar dut? Gas-tatutako dirua berreskuratzeko? Kontu hori guztia oso ondo dago, are gehiago, nik ere ziur egunen batean probatuko dudala. Baina autogestioa ere ez da arazo guztiak konponduko dituen formula magikoa. ■




ZIENTZIAPP
 ZURE MUGIKORREAN

Zientzia-albisteak
 egunero zure mugikorrean.
 Deskargatu doan!






Musika Elektronikoa Euskal Herrian

PARALELOAN

ESPERIMENTAZIOA ETA LIBRE

Argiak itzali eta jarri musika. Dantza, ordu luzez dantza. Musika elektronikoarekin gorputzak batzeko eta askatzeko unea bihurtzen da gaua. Argiak jarri eta musika itzali. Hori da Paraleloan dj saioetan gertatzen dena. Badoaz erortzen Euskal Herrian elektronikaren inguruan luzaroan izan diren aurreiritziak.



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

ARGAZKIAK: PENÉLOPE CERESO

“Euskal Herrian beti egon da kultura elektronikoa, baina nahiko ikusezin eta estigmatizatuta. Hasi ginenean, hemen ez zen egiten guretzat ezer interesgarririk elektronikan, diskoteka handietara mugatuta zegoen gehiena, gurea ez den giro batean. Gabezia bat ikusten genuen, guk egiten ez bagenuen, ez zuen inork egingo”. Lau urte igaro dira ordutik, Egoitz Pomares eta Ekaitz Aiarzaguena *Katzak* Paraleloan dj saioak abiatu zituztenetik hutsune hori betetzeko. Sorreratik oinarritzko ideia sinplea izan da *Katzaren* hitzetan: “Madril edo Bartzelonara joaten ginen gustuko artistak ikustera, hona ez zirelako heltzen; erabaki genuen agian momentua zela hemen ere horrelako aukera zabaltzeko”.

Bilboko Kafe Antzokia eta Donostiako Dabadaba hartu dute aterpe hasieratik. *Katzak* dio gipuzkoarrak ez direla Bilbora joaten, ezta bizkaitarrak ere Donostiara, ez haien gauetara bederen, eta hori dela dj gauak bi hirietan txandakatzearen zio nagusia. *Katza*, bizkaitarra da gainera, eta Pomares gipuzkoarra, eta bakoitza gertuago dago hiri bakoitzeko girotik. Honela, aurrenekoz etxe ingurura gonbidatu dituzte nazioartean izen handikoak diren artistak, tartean, Hieroglyphic Being, Vladimir Ivkovic

edo Lena Willikens, azkenengotakoak aipatzeko. Ia beti, bertako artista garai-kideei espazio bera emanez kartelean.

Estilo librean

Kanpoko hainbat tokitan, estilo bakarrean zentratzeko joera dagoela dio *Katzak*, bakarrik *tekno* musika edo *house* jartzen dutela, adibidez. Ez da hori Paraleloanen gau estiloa: “Ez dugu halako mugarik jartzen, ekarri dugun jende guztiak izango du elementu komunik euren artean, baina ez hainbeste estilo aldetik. Gau luzeak sustatu nahi izan ditugu gehiago, bizpahiru dj eta dantzarako musikarekin, komertziala ez dena, *underground*ari lotuago dagoena diskoteka handietako musikari baino”. Momentuan nabarmenak diren musikarien aldeko apostu egiten ahalegindu dira gaur artean, garai bateko figurei hainbesteko garrantzirik eman gabe. Eta ahal dela, beti nolabaiteko oreka landuz esperimentala denaren eta dantzagarria denaren artean.

Bidea sendo urratuta, ia hogeita hamar gau antolatu ostean, Paraleloan konstantzia eta gustu onaren sinonimotzat jo dute musika elektronikoaren inguruko kritikari eta zale zenbaitek, proposamen arriskatu eta pertsonalitate handiko egitasmotzat.

Elektronika Euskal Herrian

Esan izan da Euskal Rock Erradikalaren eraginez, musika elektronikoak ez duela haizea aldeko izan gurean, ez behintzat marko komertzialetik kanpo. *Katzak* dio horren arrazoiaren muinera iristeko badagoela oraindik zertaz hitz egin: “Hemen gauza asko estigmatizatu dira. Orain beste momentu batean gaudela, baina berdina ari da gertatzen reggetoiarekin, esaterako. Beste herrialde batzuetan gazte kultura edo apur bat erradikala izan dena, hemen beste era batera ikusi da”.

1990eko hamarkadatik Euskal Herrian gailendu zen rock eszenan eman zituzten *Katzak* eta Pomaresek ere euren lehen urratsak musikari gisa. Lehenak rock talde batean jo zuen gaztetan eta jaietako kontzertuak antolatzen ere aritzen zen, eta bigarrenak bazuen Bidehuts-ekin lotura bat. Eredu horietatik elektronikaren esparrura momentu onean sartu zirela uste du bizkaitarrak: “Kontzertu *normal*-en neke bat zegoela sentitzen genuen, bazegoela jaietan modu aktiboagoan parte hartzeko gogoia, ez bakarrik dantzan, beste modu bateko esperientzien bila zebilela jendea”.

Eta asmatu zuten antza, azken urteetan gero eta jende gehiago nabaritzen baitute elektronikaren inguruan Euskal



» **EKAITZ AIARZAGUENA KATZA:**
 “Euskal kulturgintzaren uretan musika elektronikoa hirietako periferiekin, drogekin, inguru erdaldunekin lotu izan da”

» **EGOITZ POMARES:**
 “Euskal Herrian beti egon da kultura elektronikoa, baina nahiko ikusezin eta estigmatizatuta. Gabezia bat ikusten genuen, guk egiten ez bagenuen, ez zuen inork egingo”



Aurrenekoz etxe ingurura gonbidatu dituzte nazioartean izen handikoak diren artistak, tartean, Hieroglyphic Being, Vladimir Ivkovic edo Lena Willikens.

Herrian. Paraleloanez gain, Dabadaban bertan egiten diren ekimen elektronikoak jarri ditu adibidetzat *Katzak*. Bere esanetan, momentu honetan askoz harrrera hobia egiten dio jendeak proposamen elektronikoari hasi zirenean baino.

Sen eraldatzailea

Ba al du musika elektronikoak gizar-tean eragiteko gaitasunik? Potentzialki

zalanza gabe baietz dio *Katzak*, errealtatea gero bat etortzen den beste kontu bat da. Hala azaldu du: “Musika elektronikoaren momentu onenetan, 1990eko hamarkada inguruan, esperientzia kolektibo asko sortu ziren elektronikaren inguruan. Musikak eragiten zuen, musika hari eroalea zelako beste gauza batzuetarako, komunitateak sendotzeko, jende desberdina gela batean kantuan

jartzeko. Ezin dugu ahaztu, House musika beltz eta homosexualen komunitateetan sortu zela, adibidez. Erretorika asko dago honen inguruan eta izan, potentzialtasun handia dauka, gero ostiral gau normal batean, ze potentzialtasun duen ez dakit, baina letra politikoak dituen rock kontzertu batek ere praktikan zenbateraino eragiten duen ez dakit”.

Paraleloan saioen zehar helburuetako bat da irizpide segregatzaile guztien gainetik, jende ezberdina espazio berean batera dantzan jartzea, musikaren bitartez komunaren alde egitea. Baina ez da bakarra, hedonismoaren aldeko praktika ere bada: “Guztiz legitimoa da aste guztia lanean eman duzunean, gela ilun batean sartu eta ordu luzez dantza egin nahi izatea. Hori ere oso aldarrikagarria da, eta ez da oso ondo ikusia egon Euskal Herrian”.

Euskal kulturgintzaren uretan musika elektronikoa hirietako periferiekin, drogekin, inguru erdaldunekin... lotu izan da *Katzaren* ustetan. Nolanahi ere, azken urteetan ikuspegi hori gero eta gehiago arrakalatzek bideak irekitzen dituelakoan dago: “Dena ez da izan behar rocka eta ez da beti izan behar politikoki esplizitua, gauzak askotan eraldatzaileak izan daitezke esperientzia moduan, letra gabe ere”. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Zelula amak



Igor Estankona



Poemak

MIROSLAV HOLUB

Susa, 2016

Zelula amak izaki batean propioak diren beste edozein zelula mota ekoitzi ditzaketen zelulak dira: Miroslav Holuben berba hauek zientziatik datoz eta lirismoa darie, poesia bihurtu dira.

Zelula amen berezitasuneko bat gorputzean zein andui batean denbora mugagabez mantendu daitezkeela da: liburua irakurri berritan ez nintzen ohartu; beste ikuspuntu bat iradoki dit poesiaren materialei buruz.

Karlos Cid Abasolok hautatu eta itzuli baititu Miroslav Holub (Plzeň, 1923 – Praga, 1998) idazle txekiarraren poema zenbait, Susa argitaletxearen Munduko Poesia Kaieretarako. 1990ean berak eta Šárka Grauovák itzulia zuten Cátedra argitaletxe espainiarrean immunologoaren poema antologia bat.


Holub lehen aldiz hartu dut beraz, eta begitandu zait zientzia poema bihurtua, edo zientziak poesiatik daukanaren analisisa. Horregatik ironiko bihurtzen da halabeharrez, diziplinen nahasteak badauka eta umoretik zer edo zer, esperimentuaren poza dario: “Hemen dautza/ pobreen hizkuntzak,/ jeneralen biriak,/ salatarien begiak,/ martirien larruak,/ kristaltxo mikroskopikoen/ absolutuan”. Miroslav Holubek gaixotasun fisikoak bihurtzen ditu maiz humanitatearen izurrien metafora, eta kapaz da geometriatik ateratzeko lezio bitalak: “Bi lerro paralelok/ beti egiten dute topo/ geure eskuaz marrazten baditugu./ Kontu bakarra da/ ea gure aurrean/ edo gure atzean./ Ea urrutiko tren hura/ aurrerantz doan/ edo atzerantz”.

Urruna eta axolagabea eman dezake, baina ulertuko duzu, irakurle, bere karga, liburuari aukera ematen badiozu. *Bohemioaren*

poemak *Science* aldizkarirako ziren, mikrobiologiaren dihardute, eulia, gorotza, hostoaren nerbioa dute aztergai. Penguinek ekarri zuen, altzairuzko errezelaren azpitik, ingeles-hiztunen gustua egiteko, hirurogeigarren hamarkadan. Txekoslovakia bere blokearen diziplinara itzularazi zuen Pragako Udaberriaren ostean, inguruan ez ikusiarena egin zioten askok.

Gurean Maite Gonzalez Esnalek ekarritako oihartzun batzuk baino ez daude bereak, 1991ko bosgarren *Hegats* aldizkarian. Orain bai, orain justizia zientifikoa egin zaio Miroslav Holubi. Ez da poeta bat bereziki hunkitu nauena, baina bai interesgarria eta freskoa, letra larriz idatzi ohi den historia eta zapal dutako jende anonimoena maisuki nahastu dakiena, halako enpatia unibertsal bat sortuz den guztiarekiko: “Alsazian,/ 1885eko uztailaren seian/ txakur amorratu batek/ bederatzi urteko Joseph Meister lurrera bota/ eta hamalau aldiz zuen ausiki”. ■

Txekiar Errepublikako idazle Miroslav Holub.



» TELEGRAMA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa Iruñeko Katakarak kultur gunean jokatu da abenduaren 16an, ostiralez, 17:00etan **STOP Iduzkilore konpainiak** Xabier Mendigurenen *Telesforo ez da Bogart* antzerki obra jokatu du Senpereko Larreko aretoan, abenduaren 17an, larunbatez, 20:30ean **STOP** Donostiako Kutxa Kultur Artegunean, **Alberto Schommer** argazkilariaren *Modernitaterantz* erakusketa zabalik dago abenduaren 2tik martxoaren 19ra bitartean **STOP Korrontzi** eta **Gwendal** musika taldeak **Gasteizko Aitzina Folk jaialdian** izanen dira Mendizorrotza polikiroldegian, abenduaren 27an, asteartez, 19:30ean **STOP**

» DISKOA

Pertsona bat, belaunaldi bat, jarrera bat



Joxi Ubeda



Amaierarik gabeko ibilbidea

JULHNE27

DVD2. Autoekoizpena, 2016

Jul Bolinaga arrasatearraren omenaldian lagun musikari andana bildu zen. ARGAZKIA: IKOR KOTX



RIP taldearen sortzaile eta beste hainbat musika proiektutan aritutako Jul Bolinaga arrasatearrari omenaldi itzela egin zioten bere herrian 2015eko ekainean, motorren eta musikaren zale amorratua zenaren ibilbide emankorra matrikula kutsuko izenean batuta. Gitarra jotzailearen lagun burutazioa eta ekimena izan zen, eta herriko jaietako egitarauan sartuta Arrasateko Udalak ekimena bera erraztu eta lagundu zuen. Arrasateko Monterron parkean ospatutako jaialdi horretan bizi izandakoa oso zaila izaningo da errepikatzea: Euskal Herriko –eta kanpoko– musika-eszenako iraganeko eta gaur egungo belaunaldi desberdinek parte hartu zuten, batzuek agertoki gainean eta beste batzuek horren azpian. Baina guztiak pertsona bat, belaunaldi bat, gauzak egiteko modu bat omentzen eta ospatzen jai giroan, berak egingo lukeen bezala. Han bizi izandakoaren lagin

esanguratsu bat Jul Lagunak ekimenak kale-ratutako DVD bikoitz honetan jasota dago.

DVDaren lehenengo blokean Jul nekazezina izandako musika talde askotariko batzuk jasota daude, gau hartan zuzenean aritu zirenak: The Clashen kantutegia lagun artean parteka-

tzeko sortutako Magnificent 7 proiektua, Arrasatekoa; punkaren esentzia eta desparpajoa berpizteko Txerra eta Jul Bolinaga anaiek Gasteizen beste lagun batzuekin batera sortutako Karrocerias Betoño; aipatutako anaiek punk-rock gitarreroena errebindikatzeko zakur zahar gehiagorekin sortutako Piztu Punk!; eta azken garaian banjoarekin txoratzen sortutako The Potes taldea, folka, parranda gogoa eta punk esentzia batzen dituen.

DVDaren bigarren blokea, berriz, RIPen kantutegiak osatzen du eta Jul-en anaia zein RIPen sortzaile ere baden Txerra bateriaren atzean izan zen lanean (eta disfrutatzen) kontzertu osoan. Bitartean, iraungitze datarik ez duten eresi garratz horiek abesten zein interpretatzen dozenaka abeslari, gitarra eta baxu jotzaile txandakatzen joan ziren parke zoragarri horretako agertokian, kantutzar horiek bere egiten eta gurekin partekatzen. Aspaldiko aurpegiak arimaz gaztetuta eta oso sasoi onean ikusi genituen (Josu Zabala, Eneko Bap!, Fermin Muguruza, Drogas, Pikotas Odio, Andoni Delirium Tremens, Niko MCD, Mamen eta Loles Vulpes, Poti Cicatriz en la Matriz, Isa IV Reich, Nabo Cirrosis eta abar), beste belaunaldi batzuekin (Soziedad Alkoholikako kideak, Fer Apoa, Juan Goversors, Podri Rat-Zinger, Juanra Kop eta abar) eta Arrasateko hainbat eta hainbat musikarirekin, Jul bidelagun izan zutenak, bat eginda. ■

Gordintasun dosia



DOS POR DOS

LOS NITXOS ETA INOREN ERO NI

Gasteizko Gaztetxean, azaroaren 11n. Muinoko Hotsak egitasmoaren barruan antolatutako kontzertu honetan luxutik oso gertu ibili ginen, bertaratutakook espero genuena, edo agian gehiago, jaso genuen-eta: gordintasun dosi dotore bat.



Jon Aranburu Artano
@jonaranburu

Oraingoan ere Gasteizko Gaztetxean. Hasteko Los Nitxos gasteiztarrek eta segidan Inoren Ero Ni. Soinu gordinen zale garenontzat ezinbesteko zita. Batzuek hala besteek denbora zeramaten Gasteizen aritu gabe, eta aurreko egunetan nabari zitekeen hori, zain geunden.

Los Nitxos taldekoek hartu zuten taula lehenbizi. Psikodelia kutsuak dituztela esango nuke, garajea ere nabari da, eta eurek diotenez post punka egiten dute. Dena, gordin. Hortik aurrera, dituzten eragin guztiak definitzea baino, hobe zuzenean ikusten badituzue, edo euren bi lanetako bat entzun. Denak, dotoreak. Eta gasteizko kontzertua ere dotorea izan zen. Batez ere *Carnalito* azken laneko kantuak jo zituzten eta hurrengo baterako gogoz utzi gintuzten. Izango da aukerarik aurrerago ere.

IENNEI aurkeztera zetozen Inoren Ero Ni-koak, euren estudioko bosgarren

lana. Aurreko hiru lanen ostean, trilogia amaitu izangatik-edo taldearen beste ziklo bat iragartzen zigun disko berriak. Ziklo berriaren beste seinale bat ziren Guantxe baterian zela sortutako kantuak, nahiz eta urte batzuk badaramatzan Mikel Txopeitiak utzitako lekuan -barka, baina luzea da Pintzaren itzala-.

Bost diskoetako kantuak jo zituzten, zaletuon gozamenerako. *IENNEI*ko kantu guztiak, inprobisatutako kantuak izan ezik, eta beste lanetatik, bada, *Tanger*, *Bi Ziba Ero*, *disonantzia*... Kantu zerrenda, tatxarik gabea. Hasi *IENNEI* zabaltzen duen *Pantera Emearekin*, eta lehen laneko *Iparralderarekin* amaitu arte.

Bueno, izan gaitezen zintzoak: kontzertua ez zuten kantu batekin hasi, zentzu hertsian hartuz gero. Okene Abrego, taulagainean eserita, paper bat eskuan, irakurtzen hasi zen, hil berria zen Leonard Cohenena ematen zuen jantzia-

rekin. Ikaragarria da Abrego jaunaren maisutasuna jendaurrean, badu magnetismoa, dotore mugitzen da, iaioa da taulan atzera mugitzen, elegante uzten die bere taldekideei protagonismoa hartzen bera atzera joanda. Gutxitan ikusten diren *frontman* horietakoa da Okene jauna.

Beste taldekideak ere ez dira atzera gelditzen, orde. Lehenago aipatutako Guantxek berak eman dio bere soinua taldeari, eta kantu berrietan bereziki nabari da hori, normala den moduan. Mariano berriz, taldearen zutabea da, sendoa, ildoak markatzen duena. Eta azkenik, Borja Iglesias: Inoren Ero Ni-ren soinuaren zati handiena, nire ustez. Gordina da Iglesiasen soinua, soila bere jotzeko modua, handikeriarik gabe, eta disonantzia zalea. Jo gabe egoten dakien gitarrajole gutxi horietakoa da, eta benetan eskertzen direla halakoak. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Anje Duhalde

EDERTO ADARREZ JOKA		AZTARNA, OINATZ ①		TXORIEN BABESLEKUA KRISTO ONDOREN		DAUKA (AL- DERANTZIZ)		MAZI ARRESKE		SARBIDEAK MUSU TRUK, DEBALDE		ZUHAIXKA AIHENTSUAK ④	
						DIRU KANTITATE HANDIA ③							
② ZEHEA								HONDATU, BALIO EZ DUEN LANDARE LEKADUN					
				IBILTZERA BEHARTU PORTU									
BIPIL, SOIL EDUKI- NEURRIA, PITXERDIA								GAI LIKATSU ETA BELTZAKA MARGO					
						LATZ DUDARIK GABEKOA						NANOME- TROA LUMA MULTZO	
ARRAZOIA, ZERGATIA	⑤ NARRAZIO LABUR									BILOA HIRU, ERROMATAR ZENBAKIZ			
				ABANTZU, KASIK ZIRT EDO...				LETXUGAREN BARRUAL- DEAK ORBANA, ORINA					
3,1416 GAR HANDIKO SU			ZUTOIN ZAREN HORI							MANGA- NESOAREN IKURRA NAUKA			... ZEDONG, LIDER TXINATARRA
						GARIAREN HAUTSA IKUSI (LA- BURDURA)						MEGA LETRA IZENA (ALDERAN- TZIZ)	
HELDE, IZU- RRI DENBORA GARAI, ALDI								BIHARAMUNA FLUORRA					
			BEREHALA					⑥					

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Anje Duhalderen jaioterria, bertan jaio zen 1950ean eta bertan bizi da gaur egun.

② 70eko hamarkadan Mixel Ducau gitarristarekin batera sortu zuen taldea, euskal rockaren aitzindaria izan zena:



izan ere, askorentzat Euskal Herriko lehen rock taldea izan zen. Taldeak sei urte iraun zuen, 1974tik 1980ra. Ondoren, Akelarre taldean sartu zen Anje Duhalde, eta han beste lau urte igaro zituen kantari.

③ 2012an kaleratu zuen zuzeneko diskoa. Agertoki kuttunak dituen Bilboko zein Ondarroako Kafe Antzokietan grabatu zuten.

④ Akelarre taldeko kide izateari utzi ondoren, 1993an, bakarlari gisa grabatu zuen zuzeneko.

⑤ Abesti ezagun baten titulua, *Beste batekila*n



kantuarekin batera 1973an bere izenean grabatu zuen lehen diskoa osatzen zuena. Bi kantuek Daniel Landart idazlearen hitzak zituzten, eta Duhalderen eta haren arteko harreman estuaren lehen fruitua izan ziren.

⑥ Hastapenetan bateria jo zuen taldea; 15 urte zituela hasi zen bertan jotzen.

Soluzioak

U		S		Z		P		A		A		E	
N	I	U	T	I	G	I	K	R	E	R	A	A	
E	Z	T	Z	O	O	N	A	A	R	O	K	A	
			A		I								
T			R		Z								
A			R		U								
K			I		I								
A			T		A								
			E		L								
F			I		O								
U			N		L								
E			A		I								
G			J		K								
O			E		A								

Audrey Laurin-Lamothe. Finantzen mundua hurbiletik segitzen



JENOFA BERTHOKOIRGOIN

Kapitalismoaren egitura ulertu

"Desberdintasun ekonomiko eta sozialekiko sentibera izan naiz betidanik. Ekonomia kapitalistaren egiturak eta hainbat politika legitimatzeko egin diskurtsoak ulertu nahi nituelako lotu nintzen soziologia ekonomikoari. Arazo ekologiko, ekonomiko zein sozialak ulertzeko finantzaren esfera ulertu behar da".

Finantza-merkatuen indarra handituz joan da, egitura publikoen erabakietan eta herritarron bizietan eragiteko boterea lortu arte. Edozein baldintzatan finantzak salbatzeko jarrera dute estatuek. Berdin dio zorraren handitzea badakar. "Kapitalismoaren salbatzeko neurrien eraberritzea sekulakoa da, horien amaiera ez dugu agian sekula ezagutuko", dio Audrey Laurin-Lamothe. Attac-ek argitaratu *La dette du Quebec, vérités et mensonges* (Quebecen zorra, egia eta gezurrak) liburuan parte hartu du.

"Ez dabilta edozein estatu murrizten, estatu soziala dute xehatzen"



Jenofa Berhokoirgoi

Estatuaren zorra aipatzen digute austeritatearen beharra azaltzeko orduan.

Zorraren estakurua erabiltzen hasi ziren 70eko hamarkadan, estatuan neoliberalismoaren bihurtzea hartzen hasi zirenean. Azpi-kontratatzek, pribatizazioak, malgutasuna... Noizean behin izen berri bat hartzen duten politiken multzoan sartzen da austeritatea. 2008ko krisiaz geroztik gero eta gehiago aipatzen digute zorra, gero eta austeritate handiagoa justifikatzeko.

Ezin dugu gastu publikoei soilik lotu estatuaren zorra.

Bi elementu hartu behar dira kontuan. Batetik, diru sartze batzuk bazterreratu zituzte: zerga saihestea eta ihesa erraztu zituzte, zerga tasak apaldu zituzte... Enpresei zuzendu diru-laguntzak ere badira. Zerga tasa zinez apalak eta diru-laguntza alimalekoak ditugu Quebecen, sektore batzuentzat kasik zerga paradisu gara. Bestetik, diru sar-tzeen xahutzeari ere so egin behar zaio.

Hautu politiko batzuk dira eta jendarte-egituraren goian kausiturikoek dituzte erabakitzen. Ez dabilta edozein estatu murrizten, estatu soziala dute xehatzen.

Milaka milioi eman zizkieten bankuei.

Hautu politiko bat zen. Banku sistemoak badirela jakin behar da. Hamar bat inguru dira, gehienik 30 bat, baina lurreratuz gero, sistema finantzario guztia lirake lurreratuko. Konfiantza oinarritzen da sistema finantzarioa eta konfiantza hautsiz gero, domino andana bat da erortzen. Hondamendi hori saihesteko zuten hautu hura egin. Baina banku horien boterea ahultzeko neurririk ez zuten finkatu. Gaur egun, herritarren etorkizuna erabakitzen du finantza-merkatuak.

Nolaz onartzen dute botere uzte hori?

Estatuen aberastasuna ez da bakarrik garapen industrialari lotua, finantza-merkatutik ere jasotzen dute. Etengabe emendatuz doa kapitalaren etekina; aldez, lanarena geldidagorik dago. Isileko akordioa dago elite politikoen eta eragile finantzarioen artean.



AUDREY LAURIN-LAMOTHEK UTZIA

Finantzarizazioak are basago bilakatu al du kapitalismoa?

Arriskutsua zen kapitalismo industriala ere, eta ekologikoki jasangaitza zen. Bere aldakortasunagatik da arriskutsua finantza-kapitalismoa. Arriskua sistemikoa da, munduaren beste puntan gertatzen denaren menpeko gara. Gainera, neoliberalismoagatik krisi ekonomiko bati aurre egiteko behar genukeen sare soziala eskas dugu.

Aberastu daiteke zorra finantza merkatu- ra eramanez.

90eko hamarkadaz geroztik, zorrak burtsarako titulu bilakarazten ahal dituzte Kanadako bankuek. Estatuaren eta familien zorpetzea akuilatu zuen erabakiak. Arazoa da, etekina egiteko bide bilakatu delako. Maileguen bidez dirua banatzen dute ekonomiaren hazkundera ahalbidetzeko. Ikasleentzat mailegua, autoa erosteko mailegua, delako denda batek eskainitakoa... Maileguak geroz eta pertsonalizatuagoak dira.

Burtsako salerosteak zergapetzea soluzioa dea?

Aterabide multzo baten barne den so-

Gaur egungo egoera sozioekonomikoak 20ko hamarkadakoarekin eite handia duela dio Laurin-Lamothek. Garai hartan bezala, ezjakitez eta etsipenez, jendea faxismoari lotzen ari dela ikusteak kezka eragiten dio.

luzio bat izan beharko luke. Zerga sistemaren erreforma, finantza aktibitateen kontrola, Eskandinavian bezala lan denboraren txikitzea, zerga paradisuaren aurkako borroka, trantsizio ekologikoaren aldeko politikak... Anitz bada egiteko. Baina salerosteen zergatzeak ez du paradigma berri batzuen hartzea ondo rioztatuko.

Noizko kapitalismoaren bukaera?

Ez dut oraindik ikusten. Tokian tokio elkartasunarekin errimatuz doan ekonomia bat dago, baina ezin dugu finantza-ekonomiaz erabat ihes egin. 2008an inork ez zuen pentsatzen estatuek bankuei dirua banatuko zietela! Kapitalismoaren salbatzeko neurrien eraberritzea sekulakoa da, haien amaiera ez dugu agian sekula ezagutuko. Halarik ere, ez dut uste krisi erraldoi bat itxoin behar dugunik kapitalismoaren ondo-

rengoa irudikatzeko. Egunero post-kapitalismoa gauzatzen dabilta batzuk, adibidez trantsizio ekologikoaz edota lanaren alienazioaz gogoetatuz. 20ko hamarkadarekin eite handia duen egoera batean gara: soldaten arteko desberdintasun handiak, xenofobiaren igoera...

Ez du itxura onik.

Faxismoaz geroz eta hurbilago den egoera batean gara. Haren mezua pasaztea ez du lortzen ezkerak. Erran behar da sistema mediatikoak ez duela laguntzen, komunikabideen gehien-go zabala egitura pribatuaren esku delako. 1922an Mussolini sostengatzeko Erroman egindako martxan zirenek ez zekiten zer nahi zuten. Faxismoan den masifikazio efektua beldurgarria da, mugimendu baten parte izan zaitezke egiten zabiltzanaz kontzientzia edota gogoeta zehatzik ukan gabe. Faxismoan ezjakina aktibismo politikoz eraldaturik da eta hori da izugarria. Mussolini boterera iritsi aitzin hor ziren faxismoaren osagaiak, Weimarko Errepublikan aldiz ez zen antolaturiko herritarren mugimendurik, Hitler boterera heldu eta jarri zituzten baliabide instituzionalak. ■



ESKLUSIBA: Su Ta Garren azkena da Urkixotek erosi duen diskoa

Duela bizpahiru aste Su Ta Gar taldearen disko berriaz (Maitasuna oso jevia da) hitz egin genizuen Beranduegin. Inspirazio bila euskarazko prentsa guztia goitik behera irakurtzen duenez, Charles Urkixotek ez zuen aukera galdu diskoa eskuratzeko. Bi euro eta erdian erosi zion emazteak Bilboko Alde Zaharreko Top Mantan. "Negoziatzen onak dira, ematen ez badu ere, beltz horiek oso abilak dira. Melillako hesiak labanez josi ditugu eta begira! hemen daude halere". "Bilduk bandera espainola udaltxe guztietan jartzeko borondatea badu, zergatik ez dut nik Su Ta Gar entzungo?



Urkixotek ez du inoiz bere jevizaletasuna ezkutatu eta ez du aukerarik pasatzen uzten laguntxoei erakusteko.

Garai politiko berriak dira, titi!", esan zion Urkixotek, *Eratzunen Jauna* filmean Gollum-ena egiten duten aktorea zelakoan, autografo bila inguratu zitzaion umetxoari. Helegite eta isun berriak bururatzen ez zaizkion momentu txar horietan *Jo Ta Ke* abestia oso lagungarri egin zaiola aitortu du errekor guztiak hautsi dituen Laudioko seme kuttunak.

SAREAN ARRANTZATUA

Esker oneko edukazioa



Lilurarik ez!



Hezkuntzaren egoera eskasari aurre egiteko ideia iraultzailea aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak: gehiago ikastea

PISA azterketan inoizko emaitzarik kaxkarrenak lortu dituzte EAEko ikasleek, eta horrek kezka eragin die Eusko Jaurlaritzan pentsatzeagatik kobratzen dutenei. "Probaren emaitza txarrak ikusita di-da jarri ginen lanean eta dozenaka adituren lanari esker badugu irtenbidea", azaldu digu Marimaistra Arbeleena Hezkuntza Saileko kideak. "Konple-

xua da baina ea ondo ulertzeko moduan azaltzen dudan", adierazi du Arbeleena; "potrogorran ibili beharrean, ikasleek gehiago ikastea da gakoa".

Jaurlaritzako iturrien arabera, Europa osoko adituek interesa agertu dute dagoeneko sistema berriaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko. "Hainbeste hamarkada hezkuntza hobe-



NASaren laguntzaz teknologia aurreratua garatu dute ikasleen arreta hobetzeko.

tzeko ahaleginean eta hara non euskaldunek zuten errezeta magikoa", esan du izena hemen kabitzen ez zaion finlandiar batek.

*Kontatzen
ez dena
ez da*



1925-1936

MODERNITATE BAKAN BAT

"ARTE BERRIA",
DONOSTIAREN INGURUAN

2016ko AZAROAREN 5ETIK
2017ko OTSAILAREN 5ERA

STM

San Telmo Museoa



donostiakultura.com



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

#STMmodernitatea

San Telmo Museoa. Zuloaga Plaza, 1.
20003 Donostia | T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus

Erakunde babesleak

Patrono pribatuak

Enpresa ongileak

Enpresa laguntzaileak



EL DIARIO VASCO

berria



GARA

naiz:

jargia

